

EUSKAL HERRIKO *Natura*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

71
ZENBAKIA

2013ko MAIATZA-EKAINA

ARALAR MENDIKATEA EZAGUTU EZAZU

MENDIKATEKO HISTORIA GEOLOGIKOA

GIZAKIAREN AGERPENA


ARTZAINEN LANA

BASERRIKO BIZIMODUA

ARALARKO FLORA ETA FAUNA

ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEA

ARALARKO PARKE NATURALA



ARALARKO PARKE NATURALA

PAISAIK



**EUSKAL HERRIKO
NATURA**

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA
ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

**EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkarte herri-onurakoa dela aintzatesten duena.**

AURKIBIDEA

Hamaikagarren urtea - 71.zk - 2013ko MAIATZA-EKAINA

EDITORIALA

Aralar Mendilerroa Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago, hego-ekialdeko muturrean, Nafarroarekiko mugan, eta sei udal-territak lurak (Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa, Zaldibia) eta Enirio Aralarreko mankomunitatea hartzen ditu. Bertako natura -eta etnografia- balio garrantzizkoak, Euskadiko Babestutako Naturaguneen Sarean sartzeko arrazoia izan dira, Parke Naturalaren babes-irudipean. Babestutako espazioa, Altzania-Lizarrusti Mendilerroaren iparraldeko isurialdeak, Ataungo domoak eta Enirio-Aralar gunek osatzen dute. Hegoaldeko kordala banalerro kantabiar-mediterraneo da. Aralar Mendilerroko kota altuenak, ekialdek mazioan daude, Balerdi. Txindoki, Usustikoleizea, Pardarri, Irumugarrieta, Aldaon eta Ganbo (1.412 m) mendiek osatutako poligonoan. Hien artean, punturik gorena azkena da. Aitzitik, kota baxuena Zaldibian dago (185 m). Baso naturalek, babestutako espazioaren herena baino gehiago estaltzen dute; pagadi zabalak daude eta, neurri txikiagoan, harizti, artadi eta ezkaeztiak bezalako kerzineamasak aurkitzen dira. Gutxi izan arren, kontserbazio-balio handiengatik nabariak dira leku sakan batzuetako haritz, astigar eta ezkien baso mistoak edo haltzadiak. Basoen itxura konifero exotikoen plantaketa ugariekin osatzen da; azalera handiak lortzen dituzte Ataungo domoan eta Sarastarrin. Ale honetan balio handiko Parke Natural honek dituen sekretuak eza-gutuko ditugu.

**Fernando Pedro Pérez
(Zuzendaria)**



**ARALARKO PARKE NATURALA
PAISAIK** 2

Aralar mendikatea ezagutu ezazu. 4
Paisaia sortzen mendiak 5
Mendikateko historia geologikoa 6
Gizakiaren aerpena 8
Aralarko flora eta fauna 10
Leku aipagarriak eta ondare historiko kulturala 14
Kristautasuna Aralarren 15
Baserriko bizimodua 16
Baserriko kokapena 17
Hibiduaren sorrera 19
Enirio-Aralar mankomunitatea 20



Artzainen lana 21
Industrializazioaren sorrera 26
Komunikazio bideak Aralarren 27
Artoaren garrantzia 28
Desamortizazioa Aralarren 31
Bigarren industrializazioa 34
Baso - berritzeak 35
Basoetako hobekuntzak 37
Baserrien murrizketa 38
Garapen industrialak emandako kalteak 39
Aralarko fauna - ezagutu ezazu 40
Musker berdea, Seoane sugogorria 41
Sai zuria, sai arrea 42
Zapelatz arrunta, belatz handia 43
Oilagorria, Urubi arrunta 44
Haitz enara, Txantxangorria 45
Buztangorri iluna, zozo arrunta 46



**EUSKAL HERRIKO
NATURA**

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta, Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilarit-taldeak: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Cristina Urionabarrenetxea.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 4.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve.2@euskalnet.net

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarteak.



Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZA-ren arteko hitzarmena dela eta **WWW.euskomedia.org/adeve**



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF.: 94 475 28 83

ARALAR MENDIKATEA EZAGUTU EZAZU



Aralar mendikatea zabal handia da, Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dutena. Ekialde eta hegoaldeko mugak bi lurraldeak banatzen dituztenak dira. Iparraldean eta mendebaldean, Bedaio Goikoa, Amezketeta, Abaltzisketa, Larraitza, Zaldibia, Antsurieta, Ataun, Ergoiena artean doan marra bihurtzen da eta Ursuaran (Etxegarate) eta Agaunzaren arroak banatzen dituen Balankaleku-Atxu mendiketa ditu muga gisa.

Aralarko Parke Naturalak 10.956 hektareako azalera biltzen du bere baitan, Gipuzkoako Abaltzisketa, Amezketeta, Ataun, Lazkao, Tolosa eta Zaldibiako udal mugarteei eta Enirio-Aralar mankomunitateko lurraldeari dagozkienak.

Aralar jaio eta Gipuzkoa zeharkatzen duten ibaiak Oriaren afluenteak dira eskuinaldeko ertzetik. Honako hauek dira mendebaldetik ekialdera: Agauntza, Zaldibia, Ibiur eta Amezketeta-Badaio.

Aralar aldea, Gipuzkoan kokaturik, paisaien edertasunagatik eta flora zein faunaren berezitasun eta aniztasunagatik nabarmen-tzen da. Naturgune hau babes-tea funtsezkoa da Euskal Autonomi Elkartearen alde gubxita-ra hedatzen diren espezie asko-ren kontserbaziorako.

Abeltzaintza oso garrantzitsua da Aralarren, eta mendikatean zehar banatzen diren monu-mentu megalitiko ugariak era-kusten duten bezala, lurralde honetan antzinatek praktikatzeko den erabilera. Gipuzkoan tradi-ziorik handieneko mendialdeeta-rikoa da, eta bertan egiten den jolas erabilera ere garrantzi handikoa da.



PAISAIA SORTZEN DUTEN MENDIAK

Aralar Autonomi Elkarteko lurraldeko mendi area garrantzitsuenetakoa da, bere hedadura, goru-neak, balio naturalak eta paisaiaren eragina direla eta. Paisaiaren berezko kalitatez gain, lehen maila-ko erreferentzia da eta bere ingurune hedatuak kalitate izugarria du: ekialdeko isurialdeak mendizerra-profila du (Balerdi-Uakorri-Beoin-Aldaon-Irumugarrieta) Araitzeko haran nafarraren gainean; iparraldea (Auza Gaztelu-Txindoki-Uzkuiti-Artubi-Balerdi) Gipuzkoako lurraldearen barrualdeari begira dago. Bertan Txindokiko tontorra nabarmena da, eta, behaketa-puntuaren arabera, bere silueta desberdi-nak agertzen dira; Ataungo domoa (Haizkoate-ltaundieta-Leizadi), Aralarko mendebaldeko mendi-adarretan, herri honetatik Lizarrusti Gainera doan errepideak zeharkatua ...

Aralarren klima tropikala da nagusi eta koral ugari bizi dira. Koralak, beste guztien antzera, bereziak dira eta biziko badi-ra itsaso epela eta sakonera gutxikoa behar dute derrigorre-an. Itsasoak berak ez ezik, klimak ere epel eta egonkor iraun zuen milioika urtetan.

Koralak pilatu eta harri-multzoak, arrezifeak, osatu dira denboraren poderioz. Harri-multzo horiek dira egungo mendikatea osatzen duten mendiak. Uretatik lehenengo irten zirenak eta aldi berean gau egun garaienak direnak, dira mendi zaharrenak, fami-



liako asaba zaharrak, 190-204 milioi urte dituztenak: Intzeko Dorrea edo Irumugarrieta (1.430 metro), Ganboa (1.212 metro), Alotza eta Pardarri (1.396 metro).

Bigarren belaunaldia osatzen duten mendiak, duela 100-112 milioi urtekoak hauek dira; Balerdi (1.208 metro), Larrunari edo Ñañari, Txindoki bezala eza-gutzen dena (1.348 metro), Ausoko Gaztelu (904 metro), Ataungo Domoaren eratzuna, Sastarri (996 metro), Akaitz (1.079 metro) eta Lizarrustiko haitzak (621 metro).

Egungo Aralar osatzen duten koral eta harrien pilaketa 113 milioi urtean zehar eman zen eta duela 91 milioi urte inguru bukatu zen.

Urteetan zehar, poliki baina etenik gabe, lehorrean zeuden lurrek gora egin zuten eta, ondorioz,

higakin ugari pilatu zen itsasoan, bertan zeuden koralak, emeki-emeki, ezkutatu egin zirelarik.

Garai horretan, duela 100 milioi urte, bi lekutan eman ziren bi gertaera garrantzi-tsu izan ziren: alde batetik, Ataungo Domoa deituaren sorrera, kupula itxurako muinoa bera, azpian zeuden material plas-tiko eta arinak, konpresioaren ondorioz sabel handi baten gisara pilatu ziren, gai-neko kareharriak puskatu zituen eta, higa-dura izugarriaren bidez, gaur egun duten itxura eratu zitzairen. Bestalde, Deba eta Urola bailaretan, jarduera bolkanikoa zegoen, itsaspeko sumendiak zeuden.



MENDIKATEKO HISTORIA GEOLOGIKOA



6

EH 71 zk.

Hamaika animalia bizi izan dira Aralarren: uretan marrazoak, arrainak, dinosauro espezie batzuk, zefalopodoak eta hauen antzeko beste animalia handiak zeuden; uretatik kanpo, berriz, dinosauro handien eta beste narrasti askoren ukitua sentitzen zuen lurrazalak.

Orain dela 66 milioi urte, dinosauroak eta narrasti handiak desagertu egin ziren. Eta orain dela 50 milioi urte Orogenia alpetarra hasi zen: Afrikako plakak Iberiar penintsulako plaka bultzatu iparralderantz eta honek plaka europarrarekin talka egin zuen. Talka egite horrek izan zuen bere ondorioa: bi muturrak zimurtu eta lurak gorantz egin zuen. Itsasoaren azpian zeuden harriak lehorrera irteten hasi ziren orain dela



6 milioi urte ingurura arte.

Itsasoa, gaur egun baino 300 metro beherago zegoen. Higaduraren ondorioz paisaiak formaz aldatuz joan dira; urak, maldan behera indartsu doanean, materialak eramaten ditu itsasorantz, mendian hainbat forma desberdin irudikatuz.

Aralarren higadurak era berezian lan egin zuen, gaia kareharria baita: kareharriak bigunagoak diren giharrek izaten ditu tartean. Euri-urak, okela bigunenetik hasi, giharretatik, eta kareharria disolbatu egiten du. Hasieran egiten dituen

zuloak leize- zulo bihurtzen dira aurrerago.

Zuloetatik barrena sartzen den urak, lurrazpiko errekek sortzen ditu: kareharria zulatuz eta barnera sartuz urak bere bidea egiten du, baina noizbehinka kontra egin eta zulatzen uzten ez dion geruza iragazgaitzen bat topatzen duenean, ura kanporatu egiten da, iturriak sortuz.

Aralar mendikateako urek bi itsaso gazian uzten dute beren gozotasuna, Atlantiko itsasotik batzuk eta Mediterraneoan bestek. Atlantikoan itsasoratzten dira Agauntza, Amondarain, Amezketa eta Araxes ibaie-tako urak, aurretik Oria ibaian denak nahastu ondoren. Mediterraneoan, berriz, Larraun eta Arakil, Argan batu eta Ebron barrena ibili eta gero.

Orain dela 10 milioi urte klima subtropikala zenez, alde bate-tik animalia dibertsitate handia zegoen, ugaztunena batez ere: hertzak, sarriak, ahuntzak, bisonteak, oreinak, zaldiak, jirafak, mastodonteak, elefanteak, hipopotamoak...; eta, bes-



tetik, landarediari zegokionez, behe aldeetan palmerak eta goietan oihan tropikalak zeuden.

300 milioi urte ingurutan, planetako klima nahiko egonkorra izan bazen ere, aldatzeko garaia iritsi zitzaion. Aldatu bakarrrik ez, aldakortu egin zen, gainera, duela 3,2 milioi urte, lehen glaziazioa hasiz: lur-eremu zabalak izotzez estali ziren, klima hoztu eta lehortu egin zen, lehenengo fauna eta landaredia aldaraziz, eta oihan tropikalak desagertu egin ziren.

Itsasoa eta ozeanoen maila ere jaitsi egin zen.

Klima aldiz, ez zen aldatu, baizik eta aldakortu egin zen: glaziazioen ondoren bolada epelak, lehorrak, hezeak... heldu ziren. Klima epeltzen doan heinean, izotza urtu egiten da, glaziazioa bukatu denaren seinalea.

Lehenengo glaziazioak geroztik, 100.000 urtetik behin izaten da beste bat.



7

EH 71 zk.

GIZAKIAREN AGERPENA

Ikertzaileen arabera, gizakia Afrikan sortu zen orain dela 1.000.000-1.500.000 urte inguru. Aralarren ezagutzen diren aztarna zaharrenak Ataungo Usategi kobazuloan aurkitutakoak dira, orain dela 24.000 urtekoztat jotzen direnak. Pikandietakoak, berriz, orain dela 11.000 urtekoak direla uste da.

Aztarna zaharragoak ere egongo dira, ziur asko, baina oraindik ez dira aurkitu. Izan ere, Aralarren higadura-prozesua oso gogorra denez, aztarnak "gordetzeko" ez da lekurik aproposena; ondoegi gordeta geratzen dira, erabat estalita, begien bistatik at.

Aurkitutako aztarnei esker jakin izan da gizakia nola bizi zen, jaten zituen elikagaiak, erabiltzen zituen tresnak eta jantziak eta nolakoa zen bizilekua. Elikagaiak ehiza, arrantza eta fruitu bilketatik lortzen zituzten. Tresnak eta jantziak zurezkoak, harritzkoak, larruzkoak eta hezurkizkoak ziren eta garai epeletan aire zabalean, zerua sabai zutela bizi ziren, eta garai hotzetan aldiz, haitzuloetan.

Orain dela 6.000 urte, Neolitoan, iraultza izugarri garrantzitsua eman zen: abeltzaintza eta nekazaritza ezagutu zituzten. Ardia eta ahuntza, gaur egungo artzaintzaren jatorria, orain dela 5.300 urte iritsi ziren hona ekialdetik.

Eta ez hori bakarrik: eskulan mailan, asko aurreratu zen tresnak egiteko era, zeramika lantzen hasiz. Kultura bat sortu zen, euskal kultura.

Garai hura eta egungoa parekatzean, antzak eta desberdintasunak aurkituko ditugu: antzen artean klima eta mendiaren egitura daude; desberdintasunetan, berriz, baso ugariak: harkaitza eta harrikaria ez zen guztia, basoa zen, hariztiak, artadiak, haltzadiak, lerdia.

Erraza da baso horiek nola murriztu ziren asmatzea: abeltzaintzaren garapenarekin, artzaintza gehien bat, basoak erre eta soilguneak zabaldu ziren, larreen hedadura geroz eta handiagoa eginez. Mendi gainei egoitu zitzairen lehenengo, prozesu hori jasatea.

Aldiz, behe aldean, haranetan, basoetan, hariztian gehien bat, gizakiak egiten dituen soilguneak nekazaritzarako eta neguko laree-



tarako erabiltzen dira.

ERROMATAR GARAIA

Erromako inperioa Euskal Herrian orain dela 2.200-1.500 urte zabaldu zela esaten da. Gaurko egutegia kontuan izanda, Kristo jaio aurretiko 550-200 urte inguruan.

Datak data garai horrek eragin garrantzitsua izan zuen Aralar inguruko zenbait eremutan: Nafarroa eta Araba hegoaldean, Gipuzkoako eta Lapurdiko kostaldean eta Frantziako lautadetan. Dena dela, nahiz eta erromatarren kulturako zenbait gauza guregana iritsi, ezin dugu erromanizatua izan zenik esan. Eta ere zen erromanizatua izan, ez euskaldunek defentsa sutsua egin zutelako, erromatarrei interesatu ez zitzaielako baizik. Erromanizazioa zuhaitzetan, mahastietan eta olibadietan oinarritutako nekazaritza nagusi zen lautadetan gertatu zen bereziki. Mendialdean, berriz, erromatarren

eragina askoz ere txikiagoa izan zen eta beren interesa meategien ustiaketara mugatu zen ia.

Ezin ukatu erromatarrek euskal kulturen eragina izan zutenik: alde batetik teknika berriak ekarri zituzten eta, bestetik, hizkuntza mailan, euskarak latinetik mailegu ugari jaso zuen.

Garai horretakoak dira Euskal Herriari buruz ezagutzen diren testurik zaharrenak. Autore garrantzitsuenen artean bi aipatzearen Plutarco



eta Strabonen izenak ekarriko ditugu hona. Strabonek bere "Geografia" liburuan dioenez, Aralar baskoi eta barduluen arteko mugan egon zen: baskoiak Nafarroa aldera eta barduluak Gipuzkoa aldera.

Kontuan hartzekoa da erromatarrek Euskal Herrira etorri zirenean egungoa baino askoz lurralde zabalagoa zela, Errioxa, Burgos eta Aragoiko zati bat eta Akitania hartzen baitzituen bere baitan. Lurralde zabal horretan 6 tribu edo giza talde bereizi zituzten: autrigoiak, karistiarak, barduliarak, baskoiak, beroiak eta akitaniarrak.

Egia da Aralarren erromatarren hainbat gauza aurkitu direla: Ataunen, Usategiko kobazuloan, 1970ean, 8 denario eta 8 zilarrezko moneta aurkitu ziren; Ataungo Otaduzelain Gordiano III.aren denario bat aurkitu zen eta Ataungo Jentilbaratzan, urrezko eraztun bat aurkitu zen.

Aurkikuntzak aurkikuntza, ordea, ezin dugu Aralar erromanizatua izan zenik esan. Iparraldea eta hegoaldea lotzen zituen bide nagusietan aurkitu direnez, erromatarren pasaguneko gora-beheren berri ematen digute besterik gabe. Beraz, ibili bai, erromatarrek ibili ziren harantz eta honantz Aralarren, beste leku batzuetara joateko pasabide zenez, baina ez zuten arrasto handirik utzi.

Erromanizazio prozesu garrantzizkorik eman ez zenez Aralarren, erromatarren garaiaz informazio gutxi aurkitu daiteke.

Erromatarren inperioa erori zenean, V.mendean, euskaldunak, borroka batzuk bitarteko izan baldin baziren ere, nahikoa aske bizi izan ziren inguruko erresuma eta antola-

keta politikoetatik.

Garai honetan azaldu ziren Europa iparraldeko zenbait herri-tako gizakiak: bilingoak, godoak, frankoak, bisigodoak. Hauen guztien erasoan aurrean euskaldunek egitura politikoa sendotu eta borrokarako prestatu beharra izan zuten. Dukerriak eta jaureerriak garai honetan antolatu ziren eta beranduxeago, IX. mendean, Nafarroako Erresuma.

VIII. mendetik aurrera mairuak, musulmanak dira nagusi inguru hurbilean, Nafarroa eta Araba hegoaldean bereziki, baina erromatarren antzera, beren eragina ez zen zuzenki iritsi Aralar ingurura: inguruan ibili ziren, baina ez zuten eragin zuzenik izan bertako antolamenduan.

Antolamenduan eragin zuzenik izan bazuten ere, ordea, kultura aldetik ekarpen garrantzitsuak egin zituztela esan daiteke. Hainbat tresna beraiei esker ezagutu ziren, hala nola, buztin egosiz egindako teilak.

X. mende ingurura arte Goierri bailarako biztanleek beren erlijioa, hizkuntza eta antolamendua zuten, baina kristautasunaren sarrerak gauzak zeharo aldatu zituen. Esan liteke Burdin Aroa luzatu egin zela Euskal Herriko toki menditsuetan.

Ogibide garrantzitsuena abeltzaintza zen eta nekazaritza oso gutxi garatua zegoen. Hala eta guztiz ere ofizioak sortzen hasi ziren, burdina eta zeramikaren inguruan batik bat. Jendearen bizilekuari, garai honetako hiritartze prozesurik ez dela ezagutzen esan behar da; beraz, mendi eta haranetan sakabanaturik bizi zela gizakia uste da, nahiz eta gizarte mailako antolaketa indartsua eduki; inguruko herriei borroka irabazteko adinakoa bai behintzat!



ARALARKO FLORA ETA FAUNA

Gipuzkoako lurraldean kokatutako Aralarren zatian, orokorki, bi area desberdin bereiz ditzakegu landaredi-estalkiaren arabera. Zati garaiena den erdialde eta ekialdean, larreek ari-arian basoei lurra kendu zieten horiek erabat ordezkatzuz. Prozesu hau aitzinean hasi zen eta unerren batean egonkor bilakatu zen; duela gutxi eman dira oreka hobea lortzeko urratsak. Aitzitik, mazioa inguratzen duen ertz osoan, eta, bereziki, hegoaldean, aparteko interes ekologikoko baso garrantzitsuak kontserbatu dira, eta espezie exotikoen baso-landaketak egin dira zona zabaletan. Hegoaldeko ertz honek Lizarrustiko baso hedatuan jarraitzen du. Espazio handiena pagoaren pisu bioklimatikoari dagokio, eta pagadiak, karezale-eutrofoak edo azidofiloak izan daitezke. Substratuen izaerak edo lurzorua goialdeko horizonteen lisibazio-mailak landaredia asko baldintzatzen du: Maomendi eta Allekopikoaren arteko basoa; Akaitz-Sastarriko aparteko pagadi karezalea, hagin kopurua eta garapenagatik. Area malkartsuenetan, iparraldeko fatxadako hegalean eta sakanen kasuan (Txindoki, Muitze, Arritzaga eta Balerdi) baina beste leku batzuetan ere (Akaizgo leku batzuk barne), pagadi karezalea gailurreko baso misto bihurtzen da. Baso hau, zuhaiztiari dagokionez, irekiagoa da eta tamaina txikiagoa du, baina espezie askoren nahasketaz osatuta dago.

Lizarrusti masa jarraitua da, zona altuan diren iratzedi-argiuneak ezik. Zatiirik handiena pago basoak hartzen du, eta beheko zonan badira harizti masa-xeheak eta konife-



Ribes petraeum.

ro landatuen lur zati urriak. Landaredia pagadi azidofiloari dagokiona da; leku eutrofagoak daude ibar-hondoetan eta batez ere Agauntzatik gertuko tarte unetan.

Basoez ari garenean, gauzarik garrantzitsuena biozenosia da, eta hemen espezie nagusiak aipa baditzakegu ere, ez dugu horrelakorik egingo harriei loturiko landaredi-multzoetan kopuru ugaria aipatzen delako.

Pagadien erabat kontrastatuz, artadi kantauriarren ordezkapen ezin hobea dago “domoaren” mendebaldeko hegaletan, Haizkoate eta Leizadiren artean. *Pistacia terebinthus*, *Prunus mahaleb*, *Phyllirea latifolia* bezalako zuhaixkak ... eta izaera mediterraniarreko herbazeoek edo zuhaixkek klima atlantiarrean populazioak dituzte nagusi den artearen ondoan. Barrualdean

edo ertzetan, harizti karezaleko masa xeheek (*Quercus pubescens-humilis* eta bere hibridoak) landaredi estalduraren aniztasuna areagotzen dute.

Erdialdeko eta ekialdeko zona osoan paisaia karstikoa biluzik agertzen da, zuhaitz-estaldurarik ez delako. Txikori-belardi menditarrak (txilar, otadi edo heriotzori gehiago edo gutxiagorekin) lurzoru onenetan ezarriak, larre harritarrekin txandakatzen dira azalekoenetan. Harkaitzegiekin, landaredi iraunkor gisa, flora herbazeoa eta interes botaniko izugarria duten muluak dituzte: kareharritzko pitzadura txikiko landaredi-komunitateak; arraildura zabal eta humifero-rokoak; zapalda eta haitze-bakien oinekoak laiotzetan, etab.

Pirinioetako eta kantaerialdeko endemismo eta goi mendiko berezko espezie anitz gailur garaietako leku desberdinetan sakabanatuta geratzen dira gure Autonomi Elkartearen, eta espezie horietako batzuk, gainera, han-hemenka bakarrik aurki daitezke. Besteak beste: *Saxifraga trifurcata*, *Pimpinella siifolia*, *Pritzelago alpina* subsp. *Auerswaldii*, *Potentilla alchimilloides*, *Pulsatilla alpina* subsp. *Cantabrica*, *Dethawia tenuifolia*, *Petrocoptis gr. hispani-*



Pulsatilla alpina.



Coeloglossum viridae.



Aquilegia pyrenaica.

Nigritella gabasiana, *Geum rivale*, *Hypericum richeri* subsp. *Burseri*, *Tofieldia calyculata*, *Thalictrum aquilegifolium*, *Pedicularis foliosa*, *Ribes petraeum*, eta abar.

Hegoaldeko ertzeko hegale tarte soildu eta eguzkitsuetan pre-txillardia sarritan agertzen da, eta basotik gertu dauden larre-iratzediko area batzuetan elordi lodi eta zaharrak aurki daitezke.

Kararritzko hartxingadietako florak (*Rumex scutatus*, *Centranthus lecoqii*, etab.) mendizerrako zenbait puntutan ere agertzen dira.

Koniferoen baso-landaketek (larizio pinua alertzea, Douglas izeia, intsinis pinua) garrantzizko azalera okupatzen dute Ataungo “domoaren” gunean ahurrean. Bertan ere belardiak dituzten zenbait baserri agertzen dira. Bi mota horietako lan-



Pedicularis foliosa.

daredi estalkiak iparraldeko fatxadaren mendi oinean eta Aiako arean agertzen dira. Garaia dagokionez, IX, eta X. mendeetan landaredia eta fauna ugariak ziren, berezko eta bertako fauna eta landaredia. Zuhaitz mardulez osatutako baso emankorrak nonahi ziren. Mendi gainak, harkaitzak eta behe aldeko zelaigune bakan batzuk izan ezik, dena zen basoa. Gizakiaren eraso gogorrik ez zuen naturalak jasaten eta suak erre eta larre bihurtutako mendi gainetako zenbait eredu izan ezik, beste guztia baso itxiak estaltzen zuen. Eta baso itxian, noski, animalia ugari bizi zen.

Kanpotik sartutako landare urrien artean baziaren sagarrondo, gaztainondo, intxaurondo eta mizpirondoak. Animalien artean, berriz, ondorengo mendeetan asko ugartu ziren abere batzuk: txakur, behi, ardi, ahuntz, txerri, behor eta oiloak. Aralar aparteko aberastasuna duen fauna-multzoa barne hartzen duen mendiko espazietako bat da. Mendizerrako hainbat desberdinekin loturiko



Nigritella gabasiana.



Okil beltza.



Thalictrum aquilegifolium.



Basakatua.

espezie hedatuenez gain, Herrialdeko mendi-sistema nagusienetan soilik agertzen diren beste batzuk ere badira. Area hau Autonomi Elkarteko inguru bakarra izango da habigile gisa Okil beltza (*Dryocopus martinus*) hegazia hartzen duena, baso-masa handi eta helduekin loturiko hegazia.

Harkaitegi, baso, belardi eta landen espazio ireki eta zabalek, eta toki hezeren batek, osatzen dute balio faunistiko handia duen multzo hau.

Ormodunen 147 espezie ezberdin zenbatu dira Aralarko Parkean. Funtsean ezaugarri eurosiberiarrekoak direla esan daiteke, eta horien artean menditar ezaugarriko espezieak daude mendikateko goiko eremuetan, harkaitz malloetara lotutako zenbait espezie eta eguzkiak ondo berotzen duen hainbat gun e aproposetan ezaugarri mediterraneoko beste zenbait espezie ere topa ditza-kegu.

Anfibioen artean azpimarratzekoa da gailurretako uhandrea, nahiz eta populazio urria izan.

Hegazti eta ugaztunen espezie garrantzitsuen adibideak ikus ditzakegu; lehenengoan artean, eta arestian azpimarratutakoaz gain, mazizoaren punturen batean habiak egiten dituzten harrapari ugarien presentzia nabarmena da, nahiz eta oso urriak izan, Euskal Autonomi Elkartearen iparraldean.

Hegaztiak: zapelatz liztor-jalea, sai zuria, sai arrea, arra-



no txikia, belatz handia, haritz-enara, mendi-tuntuna, harkaitz-zozo gorria, belatxinga mokohoria, belatxinga mokogorria, mendi txirriskila, eta abar.

Ugaztunak: elur-lursuaga, lepahoria, basakatua, orkatza hinka sartzen dena eta duela gutxi birsartu dutena... Horiek guztiak dira arraroenak, erbi eta basurdeez gain.

Bertako fauna, bai espezie mota desberdinei begiratuta, bai bakoitzetik zegoen kopuruari zegokionez, ugaria zela esan liteke.

Landaredi mota bakoitzak bere kokagune berezia zuen: Haritzia 500-600 metrotik behera, haran eta maldetako lurzoru sakon eta aberatsetan aurkitzen zen; pagadia: 500-600 metrotik gora, mendian; haltzadiak erreka bazter eta leku hezeetan; artadia kareharrizko malda eguzkitsuetan, lurzoru meheak dauden eguteretan; erkameztia artadia eta pagadiaren arteko gun e eguzkitsutan eta hostozabalen baso mistoa berezko ustiaketa dagoen uneetan aurkitzen zen, hau da, malkarretan, haitzarteetan, haizpeetan, lubizi lekuetan...

Lurzoru gutxi egoteagatik edota gizakiaren edo animalien eraginarengatik basorik ez zen lekuetan sastraka ugari zen: txilarra, otea, ahabia, ipurua, ezpela eta abar. Mendi gainetako belardietan abereak eta gaineratiko belarjaleak, herbiboroak ibiltzen ziren larrean. Abereak eta animalia basatiak ibiliko ez balira eta surik izan ezean larre hauek ere sastrakak eta zuhaitzek hartu eta baso bihurtuko ziratekeen.

Basoak adin guztietako zuhaitzez osatuak zeuden: Baziren erorita, bizirik gabe edo bizia haltzeko zorian zeuden adineko zuhaitzak; enbor marduleko tantai helduak; etengabe hazten ziren gazte indartsuak, sasoiak; hazitik berriki ernetako landareak...

LEKU AIPAGARRIAK ETA ONDARE HISTORIKO KULTURALA



Akatz-Sastarri basoa (gailurra eta hegoaldeko hegala). Apartekoa da pagadiaren barruan den hagin-kopurua-gatik. Flora (zurkarak eta herbazeoak) oso azpimarragarria da.

Pardarriko Lapiaza. Morfologia karstikoko area, oso nabarmena eta karakteristikoa. Flora eta fauna ere azpimarratzekoak dira.

“Ataungo Domoaren” gailur-lerroa. Ezaugarri oso bereziko formazio geologikoa; artadi kantauriar zabala eta interes handiko abifauna.

Aldaon-Balerdi gailur-lerroa eta iparraldeko fatxadako mendi eta sakanak (Txindoki-Balerdi): Mendizerrako gailur-rak. Alderdi guztietan azpimarragarria.

Pardeluzko “Zirkua” eta Arritzagakao areak. Jatorri glaziar edo periglaziarreko erliebe eta sedimentu-fomen presentzia.

Harkaiztegia eta basoa (pagadia, hagin eta gailurreko baso mistoarekin) Agaunzaren buruaren gainean, Lizarrusti Gainetik gertu.

Lizarrustiko basoa. Baso -masa zabal honen biozenosiaren multzoa.

ONDARE HISTORIKO KULTURALA

Aralarrek eta Lizarrustiko mendiketak historiaurreko hobi-kontzentrazio garrantzitsua biltzen dute (ondare paleontologikoak barne), hala haitzuloetan, nola monumentu megalitikoetan. Aipatutako hobiak mazizoan eta Lizarrustiko mendiketan zehar sakabanatuta daude.

Euskal Herri menditsuko trikuharriak, hegoaldekoak baino txikiagoak eta bakunagoak dira. Asko oso urratuak eta hautsiak daude, eta harri-pila eta kutxako harri bat edo beste bakarrik gelditzen zaie.

Euskal Herriko mendilerroen artean, Aralar dugu, zalantzarik gabe, trikuharri



gehiena duena. Eneolitos eta Burdinor aroan artzaingoak bizitsu handia izan zuen Aralarren eta gaur egun ere bai oraindik. Aralarko trikuharri asko, Aranzadi, Barandiaran eta Eguren hirukoteak aztertu zituen 1917tik 1936 bitarteko urteetan. Gero J. Elosegik aurkitu ditu beste zenbait.

Trikuharriak: Aranzadi, Argabi, Arraztarangaina, Ausokoi, Ausokoi II, Baiarrate, Erremedio, Igaratza Ip, Igaratza H, Jentillarri, Labeo, Leizardi H, Matxitxane, Txotxeta, Uelogoena Ip, Uelogoena H, Uidui, Uidui II, Zearragoena, Urritza, Igaratza E, Igaratza M, Intxusburu, Larreluz, Muñan, Napalatza.

Monolitoak: Arrubi, Ataungañe, Igaratza III, Irazustako lepoa, Jentillarri, Saltari, Supitaitz.

Tumuluak: Beaskin, Igaratza,

Leizardi Ip, Ontzanburu, Pagabe I, Pagabe II, Pontoa I, Pontoa II, Pontoa III, Pontoa IV, Larraondo, Praalata, Unanabi.

Harrespilak: Beaskin I, Igaratza II.

Trikuharria bezala, harrespila ere hilobi bat da. Hilotza erre ondoren, errautsa harrespilaren erdian jarritako kutxatila batetan ipintzen zuten. Batzuetan, kutxatilaren ordeztu lurrontzi bat erabiltzen zuten.

Harrespilak ere ikuspegi zabaleko lekutan aurkitzen dira. Mendi lepo eta bizkarretan.

Haitzulo-hobiak: Agaoz, Troskaeta, Usategi, Kobazar, Limurita, Pikandita, Koa, Armontaitze, Sastarri II, Lareo, Allekoaitze, Akaitz txiki II, Urdanaize azpi.

Aire zabaleko hobiak: Maomendi

Gainera, erromatar garaiko aurkikuntzaren bat ikus daiteke, bai eta Erdi Aroko esparru harresituak ere (Jentilbaratza eta Auzagastelu).



KRISTAUTASUNA ARALARREN

Kristautasuna erromatarren garaian kezagutu zen inguru honetan, III-IV. mende aldera. Aralarren eragin handiegirik ez zuela izan baieztatu liteke: Nafarroako herri nagusienetan komunitate batzuk sortu baziren ere, Gipuzkoan apenas sumatu zen mugimendurik. Ondorengo mendeetan bai, poliki-poliki inguruko herrialdeetara zabaldu zen erlijio berria eta Euskal Herriko bizimoduan eragina izan zuen.

Kristautasunaren ondoan bada aipatu beharrezko euskal mitologiako gizaki bat, jentila; hobeto esanda, gizatalde bat, jentilak. Euskal tradizio eta kondairetan ezaugarri desberdinak aipatzen dira jentilez hitz egitean: Indar handiko basa gizakia zela, urrutira harritzarrak jaurtikitzen zituen eta mendian bizi zena; kristauekin batera bakean bizi zen paganoa zela; jendea zenbait gauza egiten irakatsi zion pertsona zela eta Kristauren esku zabaltasunaren bizkar bizi zen menditarra zela.

Gipuzkoa gehienez bezala Goierrin IX. eta X. mendeetan hasi zen hedatzen. Garai honetako mairuen aurkako gerlek bi eragin nagusi izan zituzten: kristauren egitura militar eta politikoa trinkotu egin zen eta zenbait kristau, gerlatik ihesi, gure lurretara iritsi zen.

Bestalde, kristautasuna ez da erlijioa bakarrik, kultura eta bizimodua ere bada: bide inguruetan herriak eraikitzen hasi ziren eta nekazaritza indartu egin zen, baserria antolatuz.



Baserria eta, oro har, nekazaritza antolatzearen ondorioz gizakia sedentario bihurtu zen, bizitzeko bizileku finkoa aukeratu zuen eta lurraren jabe goa, langintzak, garraioa eta abar sortu eta antolatu ziren.

Erligio edota ohiturak zirela bide, lehendik ere bereziak ziren

lekuak kristautu eta bertan eliza eta santutegiak eraiki zituzten: Aralarko San Migelena adibidez.

BASERRIKO BIZIMODUA



Gizakia sedentario bihurtzen hasi zenean eta garapen luze baten ondoren, baserria antolatzen hasi zen eta baserriarekin batera hainbat tresna berriren erabilera, abereen indarraren aprobetxamendua, hazia erein eta uzta-biltzean, besteak beste, lan garrantzitsu bihurtu zitzaizkion.

Baserritarrek zituen eguneroko lantresna gurdia, uztarria, karramarroa, laia, alperra, arrea, eskuarea, segapotoa, azpila, pertza, malatsa, kaikua, zepoa eta beste hainbat ziren. Zentzu ekonomiko zabalean hartuta, baserriak Erdi Aroan du jatorria eta XII. eta XIII. mendeetan itxuratu zen erakunde bezala.

Nafarroan eta Araban abereen indarra, gurdia eta lurra lantzeko zenbait tresna aspalditik erabiltzen bazituzten ere, Gipuzkoan IX-X. mendeetan hasi ziren lurra era honetara lantzen. Emakumeen eta gizonezkoen arteko lan-banaketa era honetakoa zen: emakumeak etxeaz, baratzaz eta soroez arduratzen baziren gehienbat, gizonen lana izan ohi zen ganaduaz arduratzea. Geroz eta lur-sail handiagoak lantzen zituzten denen artean eta gaur egun ezagutzen den baserriaren egitura eratzen hasi ziren.

Hemengo klima hezea zenez bai abereak, bai lan-trenak eta bai janariak, nonbait gorde egin behar ziren. Behar horri erantzuteko eta gizakia bera lurrari geroz eta lotuago zegoenez, etxe sendoak eraikitze beharra izan zuen. Haritz-zura, harria eta teila erabiliz eraikin ederrak egin zituzten. Laborantza mailako aurrerapenei esker bizimodua, oro har, hobetu egin zen.



BASERRIEN KOKAPENA



Lehenengo baserriak saroetan eraiki zituzten eta lekuaren izena jarri zieten. Izen horiek gaur egunera arte iraun dute eta abizen eta goitzen gehienak ere hortik datozela baieztatu daiteke: Goikoetxea, goiko etxea; Elizondo, elizaren ondokoa; Bidegain, bidearen gainaldekoa; Mendialde, mendi aldekoa; Iturralde, iturri aldekoa eta Zubiondo, zubiaren ondokoa...

Haranetan, muinoetan eta mendietako zelaiguneetan eraiki zituzten baserriak, beti ere sakabanaturik, bata hemen eta bestea han. Biztanleria ugaltu ahala, geroago, toki aldapatsuagoetan ere kokatu behar izan zituzten etxebizitzak, soroak eta belardiak.

Familia berdineko kideak bizi ohi ziren baserrian. Guztiek egiten zuten bertan lan eta baserriak mantentzen zituzten: bertan lortutako janariaz elikatzen ziren, bertan egiten zituzten behar zituzten tresnak eta baita

jakiak ere. Oso gauza gutxi erosten zituzten kanpotik. Beraz, baserria ez zen etxe soil bat, egitura sozial eta ekonomikoa ere bazen. Baserria nukleo sozial eta ekonomiko, familiar eta autosufizientea zen.

Hiru mailatako nekazariak zeuden: Aitonon semeak baserri eta lurren jabeak ziren eta ez zuten zergarik ordaindu beharrik izaten; nekazari askeak gizaki askeak izan arren, bizi ziren baserri-etxea eta lantzen zituzten lurak erregearenak ziren, beraz, zergak ordaindu behar izaten zituzten eta azkenik, nekazari morroiek ez zuten askatasun pertsonalik izaten, ez lurrik, ez baserrik, eta jauntxoaren menpe bizi ziren erabat.

Baserria jarauspenez, herentziz, gurasoengandik seme edo alabaren batek jasotzen zuen, zaitu gabe, osorik. Normalean, aitaren ondoren nekazaritza ustiakuntzarekin jarraitzeko seme bakarra aukeratzen zen, seme zaharrena, maiorazkoa, eta beste senideak ondarrerik gabe geratzen ziren. Egia esan funtzionamendu horri esker lortu da baserriak mendeetan zehar bizirik eta zutik irautea. Seme-alaben artean banatzeko zatitzea hondamena zatekeen. Maiorazkoa, bere emaztea eta seme-alabak, guraso zaharrak eta osaba-izeba eta senide ezkongabeak, denak elkarrekin bizi izaten ziren baserrian. Maiorazkoak denak mantendu eta zaintzeko ardura zuen.

Eraikuntza aldetik aldaketa handiak izan ditu baserriak: hasieran gizakiak eta animaliak zurezko txaboletan bizi ziren eta kanpoaldean izaten zituzten txerriegia, ale-gordetxea eta beste zenbait eraikuntza. Geroago, orde, zuraz gain harrikoskorra eta harri landua ere erabiliz baserri ederragoak egin eta baserri barrura sartu zituzten lehen inguruan zituzten ale eta gaineratiko guztiak.

Azpitarratzekoa da dolarea hasiera hasieratik baserriaren





barruan izan dela; baserri bakoitzak bere dolarea zuen eta eraikinaren zati garrantzitsu bat zen.

Baserria indartzen ari zen eran, geroz eta lur gehiago lantzen zituzten, belardiak eta soroak ugalduz, basoaren kalterako. Nekazaritzarako lehen harizti izandako lurzorua, aberatsak oso, ustiatu zituzten. Ondorioz basoak murriztu egin ziren eta, noski baita bertan bizi zen fauna basatia ere.

Hasieran basoetan landu zituzten landareak garia, zekalea, garagarra, artatikia, linua, kalamua, sagarrondoa eta gaztainondoa izan ziren, besteak beste. Soro eta mendietan lan egiteko abereak erabiltzen zituzten: behi eta idiak, zaldia, mandoak eta astoak. Hauentzat behar

zuten janaria lortzeko belardiak ederki zaintzen zituzten eta larrean zebiltzan bitartean abereak itxituran egoteko landare arantzadunez hesiak egiten zituzten.

Zuhaixkez egindako hesiei esker abereak muga barruan zainduta edukitzeaz gain beste hainbat espeziek babesa aurkitzen zuen bertan, bai fauna eta bai landaredi aldetik aberastuz.

Lan egiteko sistemak ere badu bere garrantzia eta, esan beharra dago, "auzolana" bezala ezagutzen denak ondo baino hobeto funtzionatzen zuela: auzolana herriaren alde egiten den lana da. Herriko zenbait lan, hala nola bideak, ermitak, zubiak etab. Konpontzea, kaleak garbitzea, herri lurra zaintzea... bertako biztanleek doan egin behar izaten zituzten.

Auzolanen bat egiteko garaian norbaitek ezin bazuen joan, ordezkioa bidali behar izaten zuen edo, zenbait herritan, huts egiten zuten udalari eguneko soldata ordaindu behar izaten zion.

Taldeak lanak errazago egiten zituzten eta batean baten mesedetan izango zen egindakoa eta hurrena besteari tokatuko zitzaion. Garo segatua eta basoetako orbelak bildu eta, simaurrarekin nahasian, azpiak egiteko eta soroetan ongarritarako erabiltzen zen. Soroen onerako, baina mendiaren kalterako izan da hau, ongarria kentzean aberastasuna ere kendu delako eta basoen birsortzea galazti delako.



HIRIBILDUEN SORRERA



Beldurrak eraginda egindako lanak ondo estimatuak izan bohi dira, emaitza onak lortzen badira behintzat; kasu honetan indarra, defentsa eta lasaitasuna dira lortutako emaitzak.

IV. mendetik aurrera, Erromatar inperioaren gainbeherarekin batera, gatatzak ugaritu egin ziren. Mendialdean zeuden baserriak, oro har, sakabanaturik zeuden eta erasoak izateko arriskua handia zen: kanpoko gudariak, bidelapurak, lapurrak... zenbat eta bide nagusien inguruagoan egon arriskua ere handiagoa zenez, haranetan eta bide nagusien

inguruetan multzo txikiak osatuz, auzoetan eraiki zituzten baserriak. Sarrasketatik defendatzeko sortu ziren, beraz, hiribilduak Aralar inguruan.

Esan dezagun, XIII. mendera arte ez dela benetako hiribildurik sortu isurialde kantauriarreko bailaretan. Aldiz isurialde mediterraneoan askoz lehenago eman zen hiribiltze-prozesua.

Beren interesak defendatzeko behar handiena zuten jauntxoak ziren hiribilduetako biztanle nagusia, bai aberatsak, bai politikoak eta bai erlijio-gizonak; "ezer ez daukanak gordezten lanik ez" dio esaera zaharrak. Baina

beti ere jauntxoaren ingurua arrimatu ziren artisauek, salerosleak, funtzionarioek, ertzainak eta zenbait nekazari ere.

Aralar inguruko biderik garrantzitsuenak, Europako mendebaldean Penintsularekin lotzen zuelako oso nagusia zenak, Iruñea Arabako lautadarekin lotzen zuen, Nafarroako Sakanatik igaroz. Bertan eman zen inguru honetako lehenengo hiribiltze-prozesu garrantzitsua. Ikusi bestetik ez dago Sakanak eta Oria ibaiaren arroan diren herrien arteko egitura desberdintasun nabarmena: Sakanan baserriak bilduta daude, sakabanatuta dagoenik apenas aurkituko dugun.

XIV. mendean, gaur egun ezagutzen ditugun herri guztiak eratuak zeuden.



ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEA

Aralar eta inguruetako biztanleen langintza eta ogibide nagusia, hasi Neolitotik eta Erdi Aroaren hasiera bitartean, abeltzaintza zen. Eboluzioaren ondorioz aurreratu eta egokitu bazen ere, tinko iraun zuen langintza dugu artzaintza.

Artzain bakoitzak bere larreak zeuzkan; udan mendiko saroiaren baten inguruan eta neguan behe aldeko belardietan. Urtea joan, urtea etorri, ohituraz egiten zituztenak arau bihurtu zitzaizkien, idatzi gabeko lege.

Mendiko lurrak herri-lurrak zirenez, denak irekiak ziren eta nonahi ibil zitekeen. Pribatuak ziren lurrak eta, beraz, baimenik gabe erabil ez zitezkeenak, beheko saroietaoak ziren.

1400. urtean Aralar inguruko herri bakoitzak bere lurrak zituen, baina bazen zati bat, gaur egungo Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duena, Gipuzkoa aldeko Aralar garaia, inongo herriaren eskuetan ez zegoena. Zati hori Gaztelako erregearena zen. Oso lursail garrantzitsua zen artzaintzat, hortxe larratzen baitzituzten ardiak maiatzetik urrira bitartean.

1400eko urriaren 27an, Juan de Amezketa jauntxoak Enrike III.ari, Gaztelako erregeari, erosi zion lursail hori eta artzainei larrea erabiltzea debekatu zien. Artzainek, haserre, auzitara

jo zuten: herrietako agintariek Valladolideko Auzitegiaren aurrean egoera salatu zuten. 1412an erregeak herriarrei eman zien arrazoia, baina Juan de Amezketa jauntxoari urte fin eta pisu zehatzeko 1.400 florin ordaindu behar izan zioten, herri bakoitzak kopuru jakin bat.

Lursail horretatik sortu den etekina ere, proportzio berean banatuko da aurrerantzean.

Gaur egun Enirio-Aralarko Mankomunitatea 15 herriak alkate edo ordezkari osaturiko Batzordeak kudeatzen du, Ordiziako Alkatea delarik Lehendakari.

Batzorde Iraunkorra Ordiziako Alkateak eta Batasun bakoitzeko ordezkariak, urtero Batasun Bakoitzeko herrien artean txandaka aldatzen direnak, osatzen dute. Gai arruntak Batzorde-bileretan eztabaidatzen dituzte eta Urteko Batzarra mendian bertan egiten dute Irailean.

Lehentxeago Gipuzkoa aldean lurren jabetzarekin gertatzen denaren berri eman badugu, Nafarroa aldean ere antzekoa gertatzen dela esan behar da: herri bakoitzak badu bere lursaila, bai 2.190 Ha-ko beste sail bat Realengo edo Aralarko Batasuna deritzana, Gaztelako erregearena zen. Estatuarena izatetik Nafarroako Gobernuarena izatera pasa zen.

Aralar inguruko herri hauek dute lur horietan aziendak larratzeko egurra egiteko, ikatza egiteko... eskubidea: Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa, Arbizu, Lizarraga, Dorrao, Unanua, Arruazu, Lakuntza, Irañeta, Hiriberri Arakil, labar, Betelu, Arriba, Atallo, Azkarate, Uztegi, Gaintza, Intza eta Errazkinek.



ARTZAINEN LANA



Erakundeek, populazioak, ohiturek eta abarrek, belau-naldiz belaunaldi aldaketak izaten dituzte. Aldaketa horiek finkatu eta ondorengoei pasatzen zaizkielarik, eboluzionatu egin dutela esaten da.

Aralar inguruko biztanle gehienentzat artzaintza izan da ogibide nagusia. Eta historian zehar gutxien aldatu direnak, beren bizimodua eta ohiturei ondoren iraunarazi dietenak, artzainak izan dira.

Lehen, beren jabetzako lurrik ez zutenez, herri-lurretan larratzen zuten azienda. Jabetza pribatuak indarra hartu zuenean, ordea, artzainak lur-jabeei neguan larrea erosi

beharrean edo lur zati baten jabe egin beharrean aurkitu ziren.


Artzainak, egiten duen lanaren truke, erdietatik esnea, haragia, ilea eta larrua lortzen ditu. Eta gai horiek landuz lortzen duen etekina handia da oso. Adibidez, esnea arku-meak jaio ondoren bakarrik edan badaiteke ere, gatzagiaz mamia eginez urte guztian esnekia izateko aukera eskaini zien gaztagintzaren teknikak, esnea berotu, gatzatu eta gazura kendu ondoren lortzen den jakiari esker.

Arkumea jaki preziatua da, baita ardia ere. Ahari edo ardien erraiak, gantza, barazkiak eta arrautza edo odolarekin egindako hestebeteari mondejoa deritzogu eta irailaren bukaeran hasi eta urrian jan ohi den oso jaki estimatua da.

Nahiz eta "latxa" deritzon Euskal Herriko ardi motaren ilea ez izan kalitate handikoa, berokiak egiteko funtsezko osagaia izan da: galtzerdiak, txapela, kapusaiak, koltxoiak, mantak eta abar egiteko erabil izan da.

Larruarekin ere jantziak, poltsak, ontziak, lantresnak eta beste hainbat gauza egin izan da.

Urtaro bakoitzak bere lana dakarkio artzainari, urtaro batean eta bestean oso desberdina izan ohi da artzainaren lana eta bizimodua: neguan artzainak baserrietako belardietan ibiltzen dira beren artaldeekin, batzuk beren baserrietan eta inguruetako zelaietan, beste batzuk, geroz eta gutxiago, maizter Gipuzkoako kostal-





dean edo behe haraneko baserriren batean. Negu bukaera eta udaberriaren hasieran, neguko larrean daudela oraindik, arkumeak jaiotzen hasten dira. Urtaro aldaketak lan aldaketa dakar: ardiak jetzi eta gazta egitea dituzte lanik handienak.

Nahiz eta hori ziklo naturala izan, gaur egun botiken bitartez ardiak edozein garaitan jartzen dituzte arkara, arreske.

Garai batean, maiatzaren lehen hamabostaldian, artaldea eta behar zituen traste guztiak hartuta artzaina bere familiarekin Aralarko mendietara abiatzen zen. Gaur egun familia behean geratzen da, gehienez, harik eta hurrek eskola-garaiko oporrak hartzen dituzten arte. Sei hilabete zehar mendian egingo du lan eta mendian biziko da artzaina bere artaldearekin.

Artzain bakoitzak bere etxola, bere txabola baldin badu ere, ez dira txabolaren jabe izaten; inoiz ez da izan eta egun ere ez dira. Lurren jabetza dutenak dira etxolen jabeak: Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Realengo edo Aralarko



Batasuna eta inguruko Udalak.

Orain dela ehun bat arte oso eraikin xumeak, benetan "attalak" ziren eta urtero-urtero berritu beharra izateen zuten. Inola ere ez zitzaion artzainei uzten teilatua teilaz estaltzen, izan ere jabegoaren seinaletzat hartzen baitzen teilazko teilatua.

Gaur egun, oro har, teilazko teilatuez gain txabolak txukunak eta bizitzeko egokituak daude eta hainbat erosotasun dituzte: ura, argia, gela berezituak...

Txabolak, batzuetan bakarrak soilik eta beste batzuetan saila elkarren ingurura bilduta, saroe desberdinetan daude eta saroearen izena hartzen dute.

Saroea, sarroia, sarroa edo sarroea, leku batzuetan era batera eta bestetan bestera deitzen baitzaie, ardiak eta artzainak gauerako biltzen diren lekuari deitzen zaio; txabolak, artegiak, baratzak... osatzen dute.

Ia edozein langilek du gaur egun opor-eskubidea, ia edozein du asteen gutxienez jaieguna bat; "ia" horien artean, oporrik ez dutenen artean, sartzen dira artzainak. Artzainak jai eta aste, egunero zaindu behar ditu ardiak. Nahiz eta eguna joan eta eguna etorri eta urte guztian ez lan berdina egin, beti bere artaldearen ondoan egon behar izaten du. Oso langintza eta bizitza lotuta da berea.

Bizimodurik lasaiena ardiak antzutatukoan eta mendetik jaitsi bitartean izaten du artzainak, uztailaren erdialdetik aurrera garai batean eta gaur egun lehen-teago.

Garai batean artzain gehienek artaldeak 60-80 burukoak izaten omen ziren. Ehun eta ehunetik gorakoak behintzat gutxi. Ardi kopuru horrekin eta lanez arin samar zebiltzan garaia erabiltzen zuten beren festa,

erromeria, feria eta jolasetarako.

Gaitzola izeneko iturritik gainera harkaitzaren koska jakin batera harritiraka aritzen ziren batzuetan, erdi jolas, erdi apustu; uruti egon behar du koskak eta iristen zirenak gutxi omen ziren. Indarrean tiratzen eta ondo apuntatzen, bi lan izaten zituzten.

Gaur egungoek pilotan jolasten ez badute ere, "pilotaleku" izeneko zelai-gune asko ezagutzen dira. Izena duen guztia omen da eta, beraz, zerbait izango zen: "pilotaleku" horiek ordeketan daude. Aitzurrarekin lurrean laukizuzen bat markatu, erdian, alde batetik bestera beste arrasto bat egin eta jokalaria bakoitzaren lekua bereizten zuten; beraz eta gehienez, bi jokalaria izaten ziren buruz buru jokoan. Jokalaria bakoitzak pilota bestearen eremura bote egiteko moduan bota behar zuen. 16 tantotara izaten ziren partiduak eta apustuan hamaiketako jokatzeko omen zuten, askotan.

Jokorako erabiltzen zituzten pilotak artzainek beraiek egiten zituzten, goma puskararen bat labanarekin borobildu eta gainetik galtzerdi zaharren baten artilearekin bilduz; kanpoko azala trapu puska batzuk elkarri josiz osatzen zuten. Gaurko pilotak baino handixeagoak izaten omen ziren eta oso gutxitan larruzkoak. Pilota hauek zelaian bote txikia



egiten zuten, gehienez airean jokatu behar izaten zuten.

Gaurko artzain zaharrenek diotenez, Aralarren 1920. urte inguruan utzi omen zitzaion pilotan jokatzeari, garai hartan artzaintza utzi zuten artzain mordoxka batekin batera.

Pilotaz gain salto-jokua ere egiten zen Aralarko artzainen artean: Alotzako zelaian lurrean etzanda dagoen eta "saltarra" izenez ezagutzen den harria, luzeran 3,25 metro denaren gainetik. Korri egin gabe, harriaren mutur batean bi oinak elkartuta jarri eta beste aldera salto egin behar izaten zen.

Harri-jasotzen ere bat baino gehiago omen dira saioak eta apustuak egindakoak. Batean eta bestean ba omen ziren forma eta pisu desberdinetako harriak eta bakoitzaren arabera baldintzak jarri eta egiten omen zituzten indarrak neurtzeko saioak.

Pagabeko saroearen inguruan, Arraska izeneko iturriaren eskuinean, bada "korrikaleku" deritzon ordeka eta hantxe ibiltzen omen ziren norgehiagoka, nork buelta gehiago eta arinago eman.

"Makilak zeharkatzeko" jokoan ere askotan aritzen ziren, beti beraiekin zeramatzen makilaz gain jolaserako



gogoa beste ezker ez baitzuten behar izaten: bi artzainak elkarren ondoan jarri, batek bere makila ahal zuen urrutienara bota eta besteak berea lehenda-bizikoaren gainean zeharkatuta uzten saiatu behar izaten zuen. Batak lehenengo eta besteak hurrena, txandaka, horrelaxe aritzen omen ziren.

Jolasa eta jokoa, denbora-pasa eta apustua, umorea izaten omen zuten artzainek beren atsedenean oinarri. Jolas saioen bat egin, hitzaspertua ere bai, noski, eta bazkaldu eta siestarako bakoitza bere etxolara itzultzen zen. Ardiak bezalaxe abarotan.

Baina eta zergatik ez zuten jolas-garairik asteazken, larunbat eta igandeetan? Ba asteazkenetan nahiago izaten zuten Ordiziako feriara joan-etorria egitea eta igandeetan, bakoitza bere herriko meza entzutera joateko bezperan, larunbatean, lanak aurreratu behar izaten zituzten. Asteko egutegia, lana eta aisialdia tartekatuz, ongi antolatzen zutela argi dago beraz.

Artzaintza, historian zehar gutxien aldatu denetako lan-gintza izanda ere, gaur egun ez da garai batekoa. Artalde handiagoak dituztenez, baldintza hobeetan lan egiten badute ere, lotura handiko langintza izaten jarraitzen du eta aipatu berri ditugun jolas horietara ez dira jolasten egungo artzainak. Beste denbora-pasa batzuk izango dituzte, noski.

Urria izaten da, haizeetan hegoa nagusitzen denean, ehiztariak aztoratzen direnean, besteak beste gaztainak, onddoak eta ezkurak helduta eta biltzeko puntuan egoten direnean eta zuhaitzen berdeak nekearen nekez desagertu eta gorri, hori eta marroiei lekua uzten dienean,




artzainek menditik behera jaisteko aukeratzen duten hila. Mendia tritatzen denean, larrerik gabe geratzen denean, artzainak ihes egiten du, ihesi joaten da.

Norbere edo besteren baten baserrira eta udazken-negu parteko sei hilabeteak heritik eta bere familiakoengandik hurbilago emango ditu egunak artzainak.

Aralarren milaka urteko artzaintzak goiak, goiko aldeak larre bihurtu ditu, basoaren kaltetan. Basoak desagertu eta belar finezko belardi zabal eta erakargarriak sortu dira. Lurzorua larreetako egokia ez denean, oteak, txilarrak eta albitzak zikintzen dute. Larrea zikintzen duten sastraka hauek artzainak erre egiten ditu eta ondoren belarra irte ten bada ere, denbora asko baino lehen berriro haziko dira, ote, txilar eta albitz-belarrak. Erreketak lurzuorak pobretu egiten ditu: arazoari momentuko irtenbidea emango zaio, baina epe luzera geure kalterako izango da dudarik gabe.

Artzaina, bizi beharrak, naturarekin borrokatzera darama eta ugariak dira borroka horretan kaltetuak izan diren piztiak ere: hartza, otsoa eta katamotza adibidez, batzuk desagertu eta besteak urritu egin dira: horietako baten joan-etorriak aipatzearen, otsoarenari helduko diot: otsoak Aralarren bizi ziren garaian artaldeak zakur mastinekin zaintzen zituzten. Zakur handi hauen beldur ziren otsoak eta artaldeak edeki defendatzen zituzten. Baina, otsoa desagertzean, duela mende bat inguru, txakur txikiago eta trebeagoak, gaur egun ezagutzen ditugun artzain-txakurrak, erabiltzen hasi ziren artzainak.

1966ko udaberrian artaldeak eta artzainak aztoratuta ibili ziren Aralarren, buru batzuk



akabatuak ere azaldu zirelarik.

Zakur basatia izango zela, otsoa izango zela, azkenean, "axioa" egin ondoren nola etorri, hala joan egin zen "piztia". Egindako lanak eta utzitako arrastoak aztertu eta bisitaria otsoa izan zela ziurtatu zuten.

Urratzeak

Aralarko Parke Naturalaren esparruan egin daitezkeen urratzeak honela sailkatzen dira: arinak, ez hain astunak, astunak eta oso astunak.

Urratze arintzat honako hauek hartuko dira:

* Parkearen barruan eta beren beregi baimendutako lekuetatik kanpo aparkatzea.

* Bizikletaz edo antzerako ibilgailuez zirkulatzea, beren beregi baimendutako balizko eta bideetan ezik.

* Aurreikusitako aldeetatik kanpo eta erabilerei buruz indarrean dauden arauak bete gabe burutzen diren nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jarduerak, astunago gisa kalifikatzen ez badira.

* Baimenik gabe kanpatzea.

* Parkeko bake eta lasaitasuna asaldatzen duten zaratak egitea.



Urratze ez hain astuntzat honako hauek hartuko dira:

* Produktu kimikoak edo gai biologikoak baimenik gabe erabiltzea, parkearen barruan isurketak egitea edo hondakinak botatzea.

* Parkeko elementuetan inskripzio, seinale, zeinu, marrazkiak eta margoziak egitea.

* Parkearen antolamendurako arauak urratzen dituzten eraikin, instalazio, eraikuntza eta era guztietako obrak.

* Motordun ibilgailuekin ibiltzea, baimenduriko bide eta balizkoetatik kanpo.



* Sua erabiltzea, beren beregi baimenduriko balizkoetan ezik.

* Parkeko flora eta faunarekin zerikusirik ez duten landare edo abere espezieak baimenik gabe sartzea.

* Parkeko abere espezieen lasaitasuna asaldatzen duten zarata, argi eta distirak egitea.

* Zaborrak, txatarak edo beste edonolako hondakin solidoak parkearen barruan biltegitratzea.

* Parkea zaintzeaz arduratzen den pertsonalaren edozein jarduketari aurka egitea.

* «Hiri-lur eta azpiegitura barrutitik» kanpo edozein publizitate elementu jartzea.

* Parkearena den edozein gai baimenik gabe erretiratzea.

Urratze astuntzat honako hauek hartuko dira:

* Baso azalerak edo parkearen beste edozein elementu suntsitzea, atzemate, ebaketa, erauzketa edo beste jarduketa batzuen bidez, beren beregi baimendutako balizkoetan ezik, edo baimenean ezarritako baldintzak urratuaz.

* Azpiegiturak jartzeko obrak egitea, antolamenduari buruz indarrean dauden arauak lotu gabe.

* Parkeko natur ingurunearen elementuen itxura, erliebe eta antolamendua aldatu edo mudatzea.

* Motordun baliabideak erabiltzea eskatzen duten kirol jarduerak.

* Edozein abere espezie hil edo edozein abere espezieri kalterik egitea, beren beregi baimendutako balizkoetan ezik.

Oso astunak:

* Baimenik ez duten erauzketa eta industri jarduerak.

* Hondakindegia jartzea.

* Sua parkeko natur ingurunearen baldintza, produktu edo elementuak suntsitu edo aldatzeko erabiltzea.

INDUSTRIALIZAZIOAREN SORRERA




XI. mendetik XIX. era gizartean, oro har, aldaketa handiak izan ziren: komunikazioa hobetu zen; Ameriketatik artoa ekarri eta ola eta errota ugari jarri ziren martxan; merkataritza indartu zen; lanbide berriak sortu ziren eta biztanleriak gora egin zuen.

Baina odolkiak ordainetan izaten omen dira eta ugaritasun eta oparotasunari miseriak jarraitzen dio, askotan, eta hona buruhausteak sortu zituzten zenbait zoritxar: izurriteak (1564-68, 1591-1601); lehortekak (1506, 1600, 1770); gudak eta emigrazioa (Ameriketara baitik bat).

Eta gertakizun horiek, ezbehar horiek, biztanleria nabarmen murrizten zuten. Arrazoi guztien artean batek, Amerika ezagutzeak, funtseko zerikusia du gorabehera guztietan: babarruna edo indaba eta artoa ekarri zituzten bertatik, euskaldun asko joan ziren emigrante, han egindako diru asko erabili zen hemen eta hango ondasunak eskuratzeagatik sortutako gerretan euskaldun asko hil zen.

Industrializazioak, oro har, alde batetik, gizartearen garapena ekarri zuen, baina, bestetik, baliabide naturalen murrizketa gogorra bultzatu zuen.



KOMUNIKAZIO BIDEAK ARALARREN



Merkataritza indarra hartzen ari zen heinean bide berriak sortu eta zaharrak hobetu egin ziren. Aralarren ere garai hartan egin ziren gaur arte iraun duten zenbait galtzada eta gurdibide eta dagoeneko desagertu diren, desegin ditugun beste zenbait.

Aralar ingurutik bi galtzada nagusi igarotzen ziren:

Gaztela itsasaldearekin eta Europarekin lotzen zuena: Arabako lautadatik, San Adrianetik, Aizkorri zeharkatu eta Oria bailaratik behera zihoana.

Penintsularen ipar-mendebaldea Nafarroa, Europa, Aragoa eta Mediterraneoarekin lotzen zuen bide nagusiaren, Santiago bidearen, adar garrantzitsu bat, Sakanatik igarotzen dena hain zuzen.

Bi galtzada nagusi horiez gain Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen zituzten beste bide garrantzitsu batzuk ere baziren: Lizarrustitik, Igaratzatik; Bedaiotik, Azpiroztik...

Bide-sareen garapenak garrantzi handia izan zuen bertako biztanleen bizimoduaren eta lehen industrializazioaren oinarrietako bat izan zen.



ARTOAREN GARRANTZIA



Ez Kristobal Kolonek, ez berarekin zihoazenek, ez zuten artorik ezagutzen eta Amerikara iritsi zirenean horixe zen, hain zuzen, bertakoen oinarritzko elikagaia.

XVI. mendearen bukaeran ezagutu zen hemen artoa. Ezagutu, lantzen hasi eta bere emankortasunagatik, bate-tik, eta hemengo eguraldia eta lurzoruetara ondo egokitu zelako, bestetik, berehala bihurtu zen baserrietako ale garrantzitsuenak.

Artoa oinarritzko elikagai bihurtu zen bai gizakiarentzat,

ogia, taloa, bai abereentzat eta berari esker baserriak ugaritu eta sendotu egin ziren. Nekazaritzan iraultza izan zela esan dezakegu, izan ere aurretik lur lauak bakarrik lantzen baziren, artoaren etorrerarekin mendietako malda eta malkarrak ere landu eta belardi eta soro bihurtu baitzituzten.

Lur berriak lortzeko modu bakarra basoak botatzea zen eta hariztietako lurrak izaten direnez laborantzarako aberatsenak, haritz ugari bota zituzten.

Hariztiak bakarrik ez, pagoak, urritxak, intxaurrak eta harrapatutako guztiak bota zituzten.

Populazioa ugaritzeakazienda ere ugaltzea ekarri zuen: alde batetik aziendak elikatze-ko larrea behar du ugari eta, bestetik, abereak ukuluan edukitzen diren bitartean, azpian, baso eta mendietan bildutako garoa eta orbela jartzen zitzaizkien. Garo eta orbel hori, simaurrarekin nahastuta soroetarako ongarria izaten zen.

Landare gazteak segatzean eta orbela kentzean lurra pobretu egiten da eta, ondorioz, basorik ez da sortzen.

Aralar mendikateko ibaietan eraiki zituzten errotak eragin handia izan zuten. Burdina lortzeko eraiki zituzten. Zenbait lan-tresna, eraikin altzari eta abar egiteko burdina



behar-beharrezkoa zenez, oso gai garrantzitsua zen. Burdina lortzeko hiru gai behar ziren: mea, egur-ikatz eta ura. Mea egur-ikatzaren bitartez berotu eta mailua eta gaineratiko makineria uraren indarrak mugiarazten zen.

Hiru gai horietan garraiatzen zailenak ura eta egurra dira eta Aralarren, Euskal Herriko atlantiko alde guztian beza-la, ugariak zirenez, burdinolak bertako erreka eta baso handien inguruan kokatu zituzten.

Garai honetan baserriaren garapenak erroten premia

sortu zuen eta lehen zeudenez gain berri asko ziren. Errota hauek uraren indarra behar zuten mugitu eta lanean jartzeko, erreka bazterretan kokatu zituzten. Tokitan geratu ziren garai bateko beharrei erantzunez asmatu zituzten esku-errota sinpleak: bi harriren artean, eskuz, txikitzen zuten alea.

Artzaintzaz eta nekazaritzaz gain eta batez ere baserrian lanik ez zutenentzat, horrelaxe sortu ziren ofizio berriak: hargintza, zurgintza eta beste artisau-langintza batzuk.

Burdina pixka bat lortzeko ikatz asko behar izaten da. Hona, adibide gisa, datu batzuk: 1650etik 1814ra bitartean, 164 urtetan, Gipuzkoan 459.200 tona burdina egin zen. Burdina hori lortzeko 2.755.200 tona ikatz erabili zen eta 14.000.000 tona egur behar izan zen. Azalerari dagokionez, horrek guztiak, 25.000 hektarea. Basoren ustiaketa dakar urteko.

Behar zuten naturako gaia hartzen ikazkinek, egurra. Baina aurrera ere beharko zutela bazekitenez, iturria ez agortzeko moduan egiten zuten lan, geroko interresetan pentsatuz, nolabaiteko errespetuz: normalean ez zuten zuhaitza ipurditik botatzen, baizik eta lurretik pare bat metrotako altueratik adar lodien inausketa egiten zuten. Horrela, zuhaitzik ez zen hiltzen eta etekina atera egiten zitzaion.

Lan-sistema horren berri ematen dute gaur egun





basoetan ikusten ditugun pago, hartz eta gaztainondo motzek.

Egurak bata bestearen gainean jarritz eta erdian zulo utziz egiten den kono formako egur-metari txondarra deitzen zaio. Lurrez eta goroldioz estaltzen da egurra eta su ematen zaio. Egurra erabat erre gabe, pixkanaka-pixkanaka egosi egiten da, suak airea har dezan alboetan zuloak eginda.

Hamar bat egun behar izaten dira ikatza egiteko eta, ondoren, zuloak itxi eta bost egunen buruan txondarra itzali egiten da.

Txondarrak izan zirenaren berri ematen dute men-

dian, pagadietan, ikus daitezkeen lur beltzeko hainbat soilunek.

Errespetua errespetu, ordea, orain arte aipatu diren olen erabilerarako moztutako egurrari eraikuntzan, untzigintzan, altzarigintzan, etxeetako suetan eta beste zenbait erabileratarako mozten zirenak gehitu behar zaizkio.

Gizartea konturatzen zen natura mailan kalte handiak egiten ari zela eta agintariek basoen babesteko neurriak hartu zituzten: aprobetxamendurik egiten zenean landare berriak landarazten zitzaizkien basogintzan zihardutenei. Landatu ziren zuhaitzen artean gaztai-

nondoa izan zen ugariena. Mendi sail asko gaztainadi bihurtu zen eta gaztaina, artoarekin batera, jende pobreak oinarritzko elikagaia izan zen.

Mendian geroz eta jende gehiago ari zen lanean eta azienda ere ugaritu egin zen eta, ondorioz, animalia basatien aurkako erasoak bortiztu egin ziren. XIX, mende bukaeratik orain dela oso gutxira arte Aralarren ez dago ez hartzik, ez katamotzik, ez otzorik, ez arrano beltzik, ez orkatzik ikusi eta beste asko, gutxi daudenez, oso aldizka bakarik ikusi ahal izaten dira.



DESAMORTIZAZIOA ARALARREN



Desamortizazioak Aralarren ez zuen izan eragin handirik, baina basoentzat garai txarra izan zen. Espainiak 1794an Frantziaren aurka egindako gerrak, 1870ean hasi eta 1813ra bitartean iraun zuen Independentziaren gerrak eta 1833tik 35era bitarteko gerra zibilak, batik bat, zor handiak ekarri zizkieten Udalei, Zorrek ordaintzeko Estatuak zenbait desamortizazio-lege atera zituen. Garrantzitsuenak Mendizabalek 1836an eta Esparterok eta O'Donellek 1855ean ateratakoak izan ziren.

Lege horien arabera herri-lurrak salgai jarri ziren.

Denen lurak zirenak estu partikularretara pasa ziren eta erostun askok, erostean galdutako diruaren zati bat behintzat berreskuratu nahian, beren sailletako basoak ustiatzen hasi ziren, askotan basoa erabat soildu arte. Hondamen nabarmena berriz ere basoarentzat.

Desamortizaziotik at geratu ziren Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Aralarko Batasuna eta Udalenak ziren zenbait mendi-lur.

XIX. mendearen amaieran populazioa handitu zen eta mendikateko basoak gutxitzen hasi ziren. Gaztainondoak eta haritzak bezalako zuhaitzak hartu-

tako gaixotasunen ondorioz hil egin ziren. Mendearen bukaeran historian zehar ezagutu den populazio handiena bizi zen. Baina jendeak, biziko bada, jana behar du, elikatu egin behar da. Guztientzat mantenua egoteko soro eta belardi gehiago landu behar ziren: hasi lursail eroso eta aberatsenetatik eta 400 metroko goieraz beheko sail ia guztiak, malkarrak eta harkaitzak izan ezik, landu behar izan zituzten.

Malkartsuak ziren sailentzat ere, aprobetxagarriak bihur zitezkeen, erremedioa aurkitu zuten: harrizko horma eta pareten bitartez zelaitxoak,





terrazak prestatzen zituzten. Horrela, toki malkartsuan lurra landu ahal izateko eskailera-maila antzera eginiko lursail lauak ikus zitezkeen.

Soroetan bakarrik ez, mendian ere artzain-mugimendu handia izaten zen: artzain bakoitzak oraingoek dituztenak baino buru gutxiagoko taldeak izan arren, artzain kopurua ikaragarria zen. Sekulan ez zen hainbeste artzain izan uda partean Aralarko lurretan: bertan egiten zituzten, lanaz gain, lehenago aipatu ditugun jolasak, festak eta feriak, maiatzetik urrira bitartean.

Bizi zen jende guztia elikatzeko beharrezkoak ziren abere eta soro horiek guztiak, baina basoen hedadura asko murriztu zenez, mendiari kalte ere egin zion prozesu horrek. Neurrigabeko ustiaketa eta desegokia, gainera, egin zitzaion mendiari: ikazkintzarako zuhai-

tzak gaizki inausi ziren, enborrik onenak egurretarako botatzen ziren eta gero mozketak eta orbel bilketak landare berrien birsortzea galarazten zuten. Hau da, gehiegi eta gaizki ustiatzeagatik mendiaren egoera txartu egin zen.

1860tik aurrera gaztainondoak hiltzen hasi ziren: pixkanaka-pixkanaka ahuldu egiten ziren, hil arte. Ordura gaztainadi handiak desagertzen hasi ziren.

Garai hartan bizi ziren zaharrenek ziotenez, XIV.XVII. mendeetan ere antzeko zerbait gertatu omen zen: denbora luzez gaitza menderatu ondoren, landaketa berriak egin eta beherakada gainditzea lortu zen.

Gaixotasunaren berri, lehenengoz, 1940an jakin zen, Italian, gaitza sortu zuen ondoa ezagutu zenean.

Azken gaitzaldia oraindik ez da bukatu eta gaur egun gaztainondoak garapen puntu batera iristen direnean, gaixotu eta hil egiten dira.


Ordura arte, gaztaina, ogia eta esnearekin batera, gizakien negu parteko elikagai garrantzitsuenetakoa zen. Gaztaina mota asko ezagutzen ziren: egosita jatekoak, erreta jatekoak, hondatzea nahi ez bazen lehenbailehen jan beharrezkoak, sano-sano hilabeteetan iraun zezaketenak... Gaztainak bere morkotsean gordez gero, luzarago iraunen du fresko eta sano. Biltzeko, berриз, morkotsak arantza



zorrotzez osatuak egoten direnez, matxarda izeneko tresna batez baliatzen ziren gaztaina aleak lortzeko.

1907tik aurrera gaztainondoan antzera ibili ziren haritzak ere: Ipar Ameriketatik sartu zen ondo batek haritzen hostoak hauts zuri batez estali zituen eta zuhaitzak ahuldu egin ziren.

Baserritarren haritzen gaitz hau zabaltzen ikus zutenean, berehala, enborrik onenak botatzeari ekin zioten. Izan ere gaztainondoekin gertatu zitzaiena errepikatzerik ez zuten nahi: gaztainondoak zutik eta sano egotetik usteltzen hasi ziren eta, konturatu gabe, egurra baliorik gabe geratu zen eta ez zuten etekinik ateratzeko astirik izan.



Gaitzak sortu aurretik basoak egoera txarrean aurkitzen ziren eta izurriteen ondoren mendi asko soil gertatu ziren. Pagadiak eta artadiak, aldiz, nahiz eta ustiaketa gogorrak jasan, zuhaitzak osasuntsu zirenez, birsortu eta garatu egin ziren, izurritetik salbu.

Nafarroako basoen egoera osasuntsua zenez, izurriteak askoz kalte txikiagoak egin zituen han. Eta, ondorioz, gaur egun gaztainadi eta harizti onenak hantxe dira.

Ustiaketengatik eta gaitzengatik, XX. mendean mendi sail handiak soilduta zeudela aipatu dugu. Aralarren, gainera, 1821eko azaroaren 22an, Abaltzisketako Suegi parajea, Enirio-Aralarko baoak herrien artean zatitzen zituen agiria sinatu zen. Akordio horren arabera,

Mankomunitatearen hegoaldean zeuden basoak 15 herriren artean banatu ziren. Geroztik, herri bakoitzak bere zatia ustiatzeko eskubidea izan du.

Herri batzuk ustiapen egokia eman badiote ere beren zatiari, beste batzuk ez dute batera zuzen jokatu; adibidez, Lazkaok, 1841eko abuztuaren 26an, berea zuen baso zatia subastatu eta 3.500 errealetan betiko saldu zuen. Diru horrekin Lazkaoko plazan dagoen pilotalekua eraiki zen.

Ondorioz, 5. lotea, Lazkaori eman zitzaiona, Onzanburu, Doniturrieta, Jauzburu, Lezeta, Pagabe, soildu egin zen.

BIGARREN INDUSTRIALIZAZIOA

XIX. mendearen amaieran bigarren industrializazioa Aralarra ailegatu zen, trenbidearen eskutik. XIX mendearen bukaeran eraiki ziren trenbideak, Madril eta Hendaia bitartekoa adibidez, 1866an ireki zen. Eta gerta-kizun horixe izan zen, hain zuzen, Aralar ingurua bigarren industrializa-zioa ekarri zuena.

1873an sortu zen Beasainen “La Maquinista Guipuzcoana” enpresa 1917an izena aldatu, C.A.F. (Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles) eta egun oraindik inda-rean lanean jarraitzen duena.

Argindarraren beharrari erantzunez, ura aprobetxatuz, zentralak sortu zituzten Ataunen, Amezketa eta Zaldibian.

Gerratei esker, Lehen Mundu-Gerrari (1914-1918) eta Bigarren Mundu-Gerrari (1939-1945) esker batez ere, industri iraultza areagotu egin zen.

XX. mendearen lehen erdian Aralarko lurretan eta biz-tanleengan aldaketa asko eman zen. Industriak indar handia hartu zuen, siderurgia eta paper inguruak batez ere. Garrantzi gutxiagokoak badira ere, ezin ahaz-tu, Aralarren meategiak izan zirela, egun oraindik aurki baititzakegu Amezketakoen aztarnak.

Pabilioiak eraikitzeke lekurik lauenak aukeratu zituzten eta horiexek baziren ere nekazaritzarako egokienak, industriak jan egin zituen.



Industri mailako mugimenduak lanpostu berri asko sortu zituen. Baserritarrek ez zuten ordura arte bezala lan bila atzerrira, batez ere Ameriketara, irten beharrik izan. Baserrikoaz gain industrian lan egin eta etxerako diru-sarrera ziurra lortzen zuten.

Bertako jendea nahikoa ez eta Iberiar penintsulako hainbat herritatik langile asko etorri zen. Izan ere, alde batetik, penintsulan nekazaritza mailan eman zen meka-nizazioak soberakina sortu zuen eta, bestetik, industria-rik ez zen garatu. Kontuak horrela, herrialde industriali-zatueta immigrazio mugimendu handia gertatu zen.

Immigrazioak, kanpotarren etorrerak, eragin handia izan zuen euskal kultura: erdalduntze prozesu oso bortitza hasi eta garatu zen. Nafarroako zen-bait bailaratan, Sakanan bereziki, nahiz eta immigrazio-rik ez izan, ber-tako biztanleek euskara ahaztu egin zuten eta erdaldundu egin ziren.

Industrializazioa indartu ahala, neka-zaritzak garrantzia galdu zuen: base-ri asko hustu egin ziren eta beste askotan industrian eta zerbitzuetan lan egin eta hori dute ogibide, base-ria etxebizitza soilak delarik. Baserrira ogibide dutenak oso gutxi dira gaur egun eta gehienak mistoak dira; hau da, soldataren zati bat baserritik eta beste bat industrietatik lortzen dute.

Hiribilduek indarra hartu zuten eta gaur egun biztanleriaren gehiengoa bertan bizi da.



BASO-BERRITZEAK



XX. mendearen hasieran lehenengo baso-berritzeak egin zituzten Aralarren. XX. mendeko 1920 hamar-kadan zenbait lur sailetan zuhaitzak landatu ziren. Sail Txikiak izan ziren beste herrialde batzuetako esperien-tzia ikusi ondoren kanpoko zuhaitzak landatzeko erabili zituztenak. Ordura arte Aralarren ezagutzen ez ziren zuhaitz espezie horietan, batzuk, indartsu eta sendo hazi baziren ere, bere batzuk ez ziren itsatsi.

Saio hori egin arren, 1940an oraindik mendi asko aurki-tzen ziren soilik, zuhaitzik gabe. Aurreko hamarkadetan egindako landaketek eremu txikia betetzen zuten.

Gerra guztien ostean gertatu ohi den bezala, Espainiako Gerra Zibila eta II. Mundu Gerra bukatu zirenean lehen-gaiak estimatuak izan ziren. Produktu horien transfor-mazioari esker lortu baitzitezkeen beste berri batzuk.

Estimazio handia duenak, gehienez prezioa ere hala izan ohi du. Horrela, 1920ko hamarkadan zuhaitzak landatu zituztenek oso etekin onak lortu zituzten. Baratzak baino emaitza hobeak ematen zituen basoak. Eta, gainera, zuhaitz guztien artean intsinis pinua, zen errentagarrita-sun handiena ematen zuena.

“Egon hadi lo eta jango duk mehe” dioen esaera zaharrari kasu egi-nez, lur jabe guztien, Administrazioa barne, zuhaitz lan-daketa masiboari ekin zioten.

Azkarrena eta errazena hazten zen espeziea, intsinis pinua, landatu






zen gehiena. Hostoiraunkorra eta erretxinduna da. 50 metroraino hazten den zuhaitz hau jatorriz Kaliforniakoa da eta Adan de Yarza bizkaitarrak XIX. mendearen bukaeran Euskal Herrira ekarri eta Lekeitioko Zubietan landatu zuen.

1956ko otsailean izan zen izozte handi baten eraginez, intsinis pinu asko ihartu egin zen, 400 metro ingurutik gora zeudenak batik bat. Ez zen horrelakorik espero, baina gertatu zenez, ondoren baso politika berri beharra izan zuten:

Goietan, 400 metrotik gora, intsinis pinua ea, baizik eta beste espezie batzuk landatu ziren: larizioa, alertzea, Douglas izeia eta, neurri txikiagoan, Lawsoniana gehien bat.



400 metrotik behera intsinis pinuak jarraitzen zuen ugariena izaten.

Beraz, 1960 hamarkadan izotzak ihartuta utzitakoak berdindu nahian egin zen hirugarren landaketa saioa. Hirugarrena, eta mendian eragin handiena izan zuena, baserritar askok baserria utzi eta soro eta belardiak behar zen bezala zaindu ezin zituztenez, pinuz beta zituzten. Eremu zabalak puntako teknikaz eta makineriaz baliatuta landatu eta etorkizunean etekina ateratzeko modua egin zuten.

Mendiko lanak mekanizatzeak pista asko beharra sortu du, makinak lan-lekura bertara hurbildu behar baitira zuhaitz-enborren garraiorako. Makinak eta tresneria eraman behar da eta langile asko ere bai; hau da, ustia- ketak mugimendu handia dakar eta mendia jipoitu egiten du.

Gure mendietako orografia nolakoa den kontuan izanda, lur mugimendu handiak egin behar dira pistak irekitzeko eta eguraldi euritsuaren ondorioz izaten diren lubizi eta mugimenduak konpondu eta bazterrak itxuraz edukitzeko, mantentze lan handia egin behar izaten da.

Gaur egun, basoak eta zuhaitz landaketan dau den mendietan ugariak dira pistak eta berriak ere etengabe egiten jarraitzen dugu.

Mendiari gogorrago eraso izan zaio Gipuzkoan Nafarroan baino. Nafarroan zuhaitz landaketa gutxiago egin dira, eta egin direnean, haritz amerikarra sartu da gehien bat.

BASOETAKO HOBEKUNTZAK




Aralarko osasuna hobetzeko eta artzainen bizimodua aerosoagoa izateko txabola asko konpondu eta beste batzuk berreraiki egin dituzte; Irazustako lepoan eta Elutxeta inguruan ur-andrelak, deposituak egin eta txabolelara ura eraman.

Txabola batzuetan eguzki-plaken bidez argia jarri dute ere eta lau telefono mugikor ere badituzte artzainek sarrietan sakabanatua, beraien arteko komunikazioa hobetzeko.

Azkenik, belarraren kalitatea hobetzeko eta emankortasuna handitzeko, hegazkinen bitartez ongarriak botatzen dituzte. Errekabeltz inguruan dago egina hegazkinen lan horretarako behar duten pista. Han eta hemen askak egin dituzte, aziendek behar duten ura izan dezaten.

Hobekuntza eta laguntza horiek artzainari erosotasuna eskaintzen badiote ere, oraindik ez dago alde handiegirik garai bateko artzainen eta gaur eguneko arteko bizi- moduan. Oso eboluzio mantsoa izaten ari den langintza da artzaintza.



BASERRIEN MURRIZKETA



38

EH 71 zk.

Industria indartzearekin batera baserria garrantzia gal-tzen hasi da. Gaur egun gutxi dira nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi direnak. Bizibidez nekazari edo abeltzain izateko lur edota abere sail handiak behar dira. Sail handiak eta mekanizazio handia.

Momentuan, egunean eguneko lanak aise egingo dituzten tresna eta makina ikaragarriek gerora begiratzen eta kontuak ateratzen ez dakitenez, bihotza falta baitute, gaizki erabiliz gero txikizko basatia dakarkigute. Mekanizazioak eskulana gutxitzen du eta baserritarrek

industriara jotzen dute lan egiteko txoko bila. Industrian lan eginez baserria erabat uzten ez badute ere, diru-itu-rrri osagarri gisara soilik lantzen dute.

Horrelaxe, pixkanaka-pixkanaka, baserrietako biztanle-ek nekazaritzarekin zeuzkaten loturak eten egin dituzte eta baserri asko, ogibidea ematen zien leku izatetik, etxebizitza soil, bizileku, izatera pasa dira.


Jabegoari ere baserriarekin batera osorik eusteko gauza ez da izan gizakia. Baserria eta baserriko lurak osorik pasatzen ziren garai batean esku batetik bestera, normalean maiorazkoaren eskuetara, honek baserriko lanari jarraipena ematen ziolarik. Gaur egun, ordea, gurasoak hiltzean lurak seme-alaben artean banatzen dituzte, nekazaritzarako baliorik gabe utziz.

Horixe da hain zuzen Aralarren eta inguruetan sarritan gertatu dena: utzi-keria eta txikizioa. Baina badira indartu eta aberastu diren zonaldeak ere: hiriak.

Herri eta hirietan bizi da gehiengoa, industri eta zerbitzuetan lan egiten, komunikabide desberdinak bitarteko, geratu gabe eta bizkor, oso bizkor ibili ohi da batetik bestera.



GARAPEN INDUSTRIALAK EMANDAKO KALTEAK



Gizakiek eta beren lanak ibaiak zikindu egin dituzte ertzetan hormak eraiki eta bidea aldarazi dute. Bestalde, ibai ertzetako lur eta baso lauenetan eta aberatsenetan etxe eta pabilioi industrialak egin dituzte. Egingo den kalteari erreparatu gabe.

Azkenik, ibai ertzetatik urrutirago, nonahi egin dituzte autoz joateko moduko errepideak eta pistak. Lantzeko, larrerako edota basorako sailak liratekeen lurak okupatu, goldea baino tresneria gogorragoz mugitu eta paisaia erabat aldatu duzue.


Baina egia da baita ere eta, beraz, esan beharrekoa, azken aldi honetan errekupe-eratu-prozesu batean sartuak

gaudela, sartua dagoela natura: mendien ustiaketa lasaitu egin da eta gizakiak atsedean hartzean naturalak indar hartu du errekupe-eratu-prozesu sartu gara. Oraindik ere lan handia izan arren, fauna pixka bat ugartu egin da.

Hiri handietan pilatuta bizi direnen sentsibiltatea asko aldatu da. Naturatik urruntzen joan diren eran naturaren-ganako estimazioa eta erakarpene handitu egin da eta naturaren hondamenak dakartzan kalte asko eta asko ezin berreskuratuak direla ulertu da, azkenean.

Kontzientzia hori lortu denean, nahikoa ondo kontserbatu diren uneak babesteko mentalitatea zabaltzen ari da. Honela, babestutako zenbait une sortzen ari dira: Aralarko Gipuzkoako zatia 1994ko ekainaren 29an Eusko Jaurlaritzak "Parke Natural" izendapena eman zion.

Parke natural izendatzean, milioika urte duen mendikateari kutsu gaztea eman zaiola esan daiteke. Parke Natural izendatzearekin batera, Aralarko Natur Baliabideen Antolamendu Egitamua jarri zen indarrean eta bi urte geroago, 1996ko otsailaren 22an, Patronatuak Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea onartu zuen. aldiria onetan naturalak aberastera joko du eta aberastu egingo da. Orain arte iraun duenak gutxienez bere horretan iraun eta, aberatsagoa nahi izanez gero, laguntza sendoa eskainiz, garapene ziurtatua dago. Horretarako gizabanakoek eta kudeaketaren arduradunek lan egin beharko dute.



39

EH 71 zk.

ARALARKO FAUNA - EZAGUTU EZAZU



ARRUBIOA

I lunsentiko eta gaueko azturak dituen anfibio hau ohikoa da Aralarren. Zuhaitz hostogalkorren baso hezeetan egoten da, enborren eta harrien artean egunez ezkutaturik. Aldi lainotsuetan eta ekaitz handien ostean bere aterpetik irteten da eta ikusi ahal izaten da, orbel artetik mugitzen.

Espezieak kolorazio hori eta beltz deigarri du ezaugarri eta horrek beraren harrapariak beraren toxikotasunaz ohartarazten du.

Uhar garbien ertzak eta errekek eta ur ondo oxigenatuak erabiltzen ditu bere larbak uzteko. Larbok haietan 2 edo 3 hilabetez egongo dira itxuraz aldatu arte.

Helduek lehorreko ohiturak izaten dituzte eta oso igerilari txarrak izaten dira. Uretan ugalketan zehar bakarrik murgiltzen dira, eta partzialki gainera.

Zizarek, araknidoz, barez eta mota askotako intsektuz elikatzen dira.



TXANTXIKU ARRUNTA

Natur parkeko ingurune guztiak hartzen ditu; baina zaila dugu hura zuzenean ikustea, gaueko azturak dituelako. Hala ere, oso espezie ohikoa da eta beraren txirula moduko txioa entzun dezakegu, apohontzarenaren antzekoa, udaberriko eta udako haize-rik gabeko gau epeletan batez ere. Soinu hori oso baliozkoa da bera aurkitzeko.

Haren itxura potxoloa da eta hark begi-nini bertikala du. Ezaugarri horrek hura begi-nini horizontala duen eta, era berean, Aralarren dagoen apo arruntarengandik bereizten du.

Espezie hau uretatik nahiko lokabe bizi izaten da: errutera bakarrik joaten da uretara. Beraren ugalketa jokaera oso da bitxia: emeak arrautzak kanporatu ostean, arrak ernaldu eta 3-6 astetan garraiatzen ditu, harik eta ur-masa batean nahikoa garaturik utzi arte.

BASO IGELGORRIA (RANA TEMPORARIA)

Aralarko anurorik ugarienetakoa da. Habitat askotan egoten da, hostogalkor-basoetara biltzen direlarik dentsitate handienak, pagadietara eta hariztiara alegia.

Lehorreko azturak ditu, eta uretara ugaltzeko bakarrik hurbiltzen da, abendutik otsailera arte. Erruteko lekuak putzuak edo ur urriki sakondun aintzira geldiak izaten dira, bide-errodaletako urtaroko istilez gain. Errutea jelatina gardenera bakana bildutako arrautza-masa batean datza. Hori enbrioia babesten duen pantaila-edo da eta kolpeetatik eta behe-tenperaturetatik babesten du enbrioia.

Apaburu txikiak arrautzatik hilabetearen buruan irteten dira eta itxuraz aldatu arteko beraien garapena aldako-



MUSKER BERDEA



Berak ingurunearekiko mimetikoa den kolorazioa duela eta, zaila da bera ikustea. Baina ohikoa da parkeko inguru zabaletan, larretan eta landa zabaletan.

Inguru askotan bizi izaten da eta landaretza sarriko zonetan, lahardietan eta belardietan abaro egotea gustatzen zaio, haietan ia oharkabean pasatzen baita.

Beste lazertido batzuk bezala, lurraldeko espeziea da eta ugaltzeko garaian arrek aurre ematen dute inor kide baten lurrera indarrez sartzen bada. Erruteko urtaroa udaberria da. Eme bakoitzak 20 bat arrautza ezkututzen du harri azpiko zuloetan.

Bigarren errunaldia izaten da ingurune-baldintzak egokiak izanez gero.

Hertsiki haragijalea den musker berdea mota askotako intsektuz, moluskuz, araknidoz eta beste ornogabe batzuez elikatzen da.

SUGANDILA BIZIERRULEA



Sugandila bizierruleak leku hotz eta hezeak nahia-go izaten ditu, hala nola, istil uherrak. Era berean, esparru lehorragoetan ikus daiteke, landaretza dentsoko eremurik izanez gero. Aralarko klimatologia egokia da saurio txiki honentzat, eta horrelakoak ugari daude parkeko lareetan.

Araknidoz, koleopteroz eta intsektu-larbaz elikatzen da sugandila hau.

Negua hibernazio-egoeran ematen du eta maiatzean hasten du bere ugalketa-zikloa. Akoplamenduen ondorioz emea 4-10 sugandilatxo bizidunez erdituko da (bizierruletasuna). Sortu berriak oso ilunak izaten dira, ia beltzak batzuetan, eta hazi ahala progresiboki argituz joaten dira.

SEOANE SUGEGORRIA (VIPERA SEOANEI)

Nonbait parkeko ofidiorik ugariena daiteke; baina, naztura isilak eta izaera izutia dituela eta, ia oharkabean pasatzen da sugegorri hau. Guztiz lehorrekoa da eta landaretza ugariko esparruetan garatzen da, zeinetan ezkututzen baita arriskua susmatzen duenean.

Inguratuta sentitzen bada edo arduragabeki manipulatu bada bakarrik da arriskutsua gizakiontzat. Anfibioz eta mikrougastunez elikatzen da batez ere.

Espezie bizierrulea da, emeak erabat garaturik sortzen diren 4-14 kume bizidun izaten ditu udaberrian eta udazkenean.

Aralar barruan bizkar eta kolorazio ezberdineko hainbat eredu ikusi ditugu, hondo gris argiaren gaineko ohiko sigi-saga dutenetatik bizkar diseinurik ez duten eredu arreterainokoak. Badaude melanikoak(guztiz beltzak) ere.



SAI ZURIA



Hegazti harrapari honek haratustela jateko azturak ditu (nekrofagoa da) eta Aralarko haitzetako horma malkartsuetan egoten da. Errazti ikus daiteke bere hegadako silueta zuri eta beltzarengatik eta bere ziri-formako isatsarengatik.

Espezie migratzaile honek gure lurraldetik udaren bukaeran alde egiten du eta Afrikara joaten da negua pasatzera. Handik udaberrian itzultzen da umetzeko.

Bere habia haitzeko zuloetan edo arrakaletan egiten du, eguraldi txarretik babesteko lekuetan. Habia adar lehorrez osaturiko oinarria da, non emeak bi arrautza erruten baititu. Baina txito batek bakarrik irauten du bizirik normalean.

Sai txiki hau, hildako animaliez elikatzeaz eta horrela ingurunearentzat onuragarria den lana egiteaz gain, oportunista da intsektuak eta barraskiloak harrapatzeko eta mota askotako elikabideak erabiltzen.

SAI ARREA



Natur gunen honetan garatzen den hegaztiarik handienaren aurrean gaude. Aralarko orografia dela eta, haitz handiak daudela eta, gunen hau inguru egokia da saiak habia egin ahal izan dezan.

Taldekoa da (taldetan bizi da), eta elikagai bila plaineetan duen bitartean ikus daiteke. Bere elikapen-beharrianak estaltzeko, lur-zona zabalei begiratu ohi die, parkearen mugak gaindituz. Landare-gainalde sarria oztupoa da, zelanbait, hildako animaliak aurkitzeko.

Umeske-garaia abenduan hasten da. Habia, tamaina handikoa dena, haitzeko arrakalan edo erlaitzean kokatzen da eta adarrez osatuta dago, baina material-ekarpena ez da oso ugaria izaten orokorrean. Sai arre emeak arrautza bakarrik erruten du.

ZAPELATZ ARRUNTA



Tamaina ertaineko harrapari marroi ilun honek hegadan hego zabal eta biribileko silueta du, eta itxura sendoa. Beraren hegada geldo eta astuna da. Parkean ohikotzakoa da eta mota askotako habitateetan bizi den onahiko espeziea dugu. Bere habia egiteko zuhaitzi eta basoak dituzten lekuetan finkatzen da. Zonok ehizarako egokiagoak diren alde zabaletatik hurbil egon behar dute.

Ohikoa da hura goiko ikustokietan (linea elektrikoe-tan) ikustea, bere harrapakin posibleak espiatzen. Mikrougastunez elikatzen da, haratustel sarratsak ere on egiteko dio baina.

Apirilean errunaldi nakarra du, 2-4 arrautzakoa. Txitaldia ar-eme biek burutzen dute.

BELATZ HANDIA



Hegaztiak ehizatzen aditu bezala ezaguna da, Hespiatu eta jazartzeko erabiltzen dituen teknike-gatik. Azkar eta amildurik hegan egin eta bere harrapakina iristen ditu, berori atzaparrez kolpatu eta airean harrapatuz. Funtsean ornitofagoa da eta tamaina ertaineko hegazti elikatzen da. Usoz, korbidoz, birigarroz eta abarrez.

Parkean habia egiten du haitzezko hormak baliatuz.

Errazki ikus daiteke beraren hegadako silueta, hego apuntatuekin eta bere lumen koloreagatik: bizkarrean luma gris urdinxkak ditu, eta mokoaren gibelaldean bizarkutsu nabarmena.

Ez du habiarik egiten eta beste espezie batzuek habiak erabiltzen ditu. Martxoan eta apirilean erruten du: 3-4 arrautza.

MIROTZ ZURIA (CIRCUS CYANEUS)

Harrapari hau sastrakadietan egoten da, larrepean eta landetan, nahiz eta parkean mirotz zuri gutxi egon.

Beraren zilueta luzanga da. Arra gris argia da; eta emea, tonu arreduna, mirotz urdinaren kolorearen oso antzeko kolorekoa.

Bere lurraldea elikagai bila miatzen du, lurraren gain-gainetik hegan eginez, bere harrapakinak aurkitu arte. Beraren harrapakinak narrasti eta karraskari txikiak dira.

Lurrean umetzen dira, sasien sarritasuna aprobetxatuz.

Habia emeak eraikitzen du eta erabiliko du hurrengo urtean ere. Maiatzaren bukaeran behin bakarrik erruten du: 4-6 arrautza. Handik bi astera txitoak lumazturik daude eta landareen artean azkutatzen dira jatekoaren zain.



BELATZ GORRIA (FALCO TINNUNCULUS)

Eguneko harrapari txiki hau belatzen familiakoa da. Beraren behaketa erraza da; bere presentzia salatzen du "orekan egonez" (airean zintzilik egoten da hegoak indarrez astinduz eta isatsa zabal-zabal duela; hortik datorkio "cernicalo" –belatz gorria- bere izena). Horrela jarriarik, lurra miatzen du harrapakin bila, eta haiei azkar eta goitik behera oldartzen zaie. Ornodun txikiak harrapatzen ditu, hala nola, karraskariak; txoritxo ahul edo gaixoak; sugandilak; eta intsektuak.

Haitzeko hormetan eta itsaslabarretan aurkitzen ditu habia egiteko alde egokiak, eta zuloak betetzen ditu edo korbidoen habiak aprobetxatzen ditu, martxoan eta apirilean erruteko.



OILAGORRA



Espezie honek Aralarren habia egiten du, itxura sendokoa da eta ilusentiko azturak ditu.

Egunez basoaren barruan egoten da, non nekez aurki baitezakegu, mimetismoa baliatzen baitu ohar-kabeen pasatzeko. Beraren lumajea arrea da eta bertan ez da orbanik nabarmentzen bereziki. Lumaje hori beltzez eta sienaz oso jaspeztatuta dago eta orbel arteko kamuflaje bikaina eskaintzen dio.

Moko luzea du, zizareak, intsektuak eta barraskiloak harrapatzeko oso baliozkoa zaiona. Animalia horiez elikatzen da, haiek lur hezetik aterata.

Umeskea otsailean eta martxoan hasten da eta hark habia lurrean egiten du eta urtean pare bat txitaldi ateratzen du aurrera.

URUBI ARRUNTA



Gaueko harrapari hau tamaina ertainekoa da eta basoko ohiturak ditu. Indarrez jotzen du (uluka aritzen da), umetze-garaian bizikiago.

Horrela markatu eta defendatzen du bere lurraldea. Aralarren horrelako asko daude, parkeko zuhaitzitik homogeneoki banatuta.

Hark silueta bete eta biribildua du, ez du entzumen-gandorrik eta beraren begi beltzak ia ez dira mugitzen. Baina lepoa erabat biratzeko gaitasuna du.

Oso zaila da hura egunez ikustea. Izan ere, zuhaitzen adarretan pausaturik geldirik egoten da, eta bere lumaje arre-grisaskaren atzean ezin hobeto kamuflatu.

Mikrougaztunez, hegatziz, anfibioz eta intsektuz elikatzen da. Umetzeko erabiltzen ditu pagoko enbor lodietako zuloak edo hutsik dauden korbido-habia neurritz egokiak. 2-4 txito ateratzen ditu aurrera, elikabidearen arabera.

HAITZ ENARA



Haitzei hertsiki loturik dagoen enara hau malkar arroksuen arrasean eta talde txikitan zerua zirkulutan urratzen ikus daiteke. Hegazti migratzailea da, batzuetan negua gure lurraldea pasatzen duena.

Aralarren urte osoan zehar ikusi ahal dugu, parkeko zona ebakietan.

Intsektuz elikatzen da, euliz eta eltxoz, baita, sarritan, inurri hegodunez eta beste intsektu hegalaria txiki batzuek ere. Taldekoia da eta tamaina txikiko ume koloniatara biltzen da. Lurrezko katilu erdiaren itxurako habia ezagunak beti kokatzen dira leku iristezinetan, hala nola, itsaslabar arroksuetako zuloetan eta erlaitzetan.

Urtean behin edo birritan errun ahal du: 4 edo 5 arrautza, emeak txitatuko dituen.

MENDI TUNTUNA



Haitzeko zona malkartsuetan eta goialdeetan bizi da. Tuntu arrunta baino handiagoa eta sendagoa da. Beraren koloreak biziagoak dira, tonu gorriak dituztenak. Beraren zintzurra zuri eta beltzez pikardaturik dago.

Bai intsektuz eta ornogabe txikiz bai haziz elikatzen da. Hortaz, intsektu eta bikorjalea dugu.

Habia arrak eta emeak egiten dute zulo edo arrakala txikietan. Habia goroldioz, belarrez eta sustraiz estalita dago eta bertan emeak urtean bi errunaldi egiten ditu 4 edo 5na arra arrautzakoak.

OKIL BERDEA (*PICUS VIRIDIS*)

Beraren bizkarra oliba-berdea da. Haren ipurtxuntxurra hori biziko kolorekoa ikus dakioko. Kaskoa eta garondo gorri biziko kolorekoa da. Hori guztia dela eta, okil hau txit errazki identifika daiteke.

Aralarren oso banatuta dago eta parkeko habitat ia guztietan ikus daiteke, baina zuhaitzi argiko aldeak nahiago ditu.

Espeziaren ezaugarriak dira hegada uhindua eta sarrera zirkularreko ohiko habia, zuhaitz baten enborrean zulatua. Horrelako hegaztien habiak elkarren jarraiko urtetan erabili ahal dira ugaltzeko, eta neguan aterpe bezala balio izaten diete basoko beste espezie batzuei, hala nola, muxar grisei eta saguzarrei.

Okil berdea zuhaitzetatik igotzen da elikagai bila: funtsean, egur jaleak diren intsektuen larben bila. Era



berean, lurrean ikusi ohi da, bere mihi likitsuaz harapatzen dituen inurrien bila.

TXANTXANGORRIA (*ERITHACUS RUBECULA*)

Ohiko txorietariko bat da. Aralarren horrelakoak ugari dira. Distantzia laburrera ikus daiteke txorritxo hau, fidakorra eta kurioa baita. Inguru askotan bizi da, baina bereziki ohikoa da erriberetan, basoetan eta larreetan.

Lurraldeko hegaztia da eta lurreko leku nabarmenetan kokatzen da: harresietan, zutoinetan eta zuhaixketan.

Indarrez jotzen du eta laranja distiratsuko bere bularra erakusten du. "Bular-semaforo" hau, bai arretan bai emetan ageri dena, morfologi ezaugarri bereziena da, haren izen arruntari bide eman diona.

Beste txorritxo intsektujale txiki batzuek bezala, bere dieta hazi eta fruituekin osatzen du.



BUZTANGORRI ILUNA



Tamaina txikiko hegazti hau inguru zabaletan bizi da eta inguru zabalotan aurkitzen du bere beharriak estaltzeko habitatik egokiena. Haitz handietan aurkituko dugu beti. Era berean, haitz-azalerapenak eta hartxingadiak dauden alde txikiak okupatzen ditu eta landako eraikuntzen barruan umetzera hel daiteke.

Beraren lumaje neurritsuak tonu ilunak ditu, arre-gri-saska emearengan eta ia beltza arrarengan. Hura ohar-kabea pasatzen da beraren isats geldiezinaren gorri-ka kolore ikusgarriarengatik ez bada.

Isats hori goitik behera kulunkatzen du alerta egoeran egoten denean. Bere lurraldea goiko lekuan kokatutako ikustokian txio eginez defendatzen du.

Espezie intsektujale honek elikagaia lurrean bilatzen du bereziki. Era berean, fruituz eta haziz elikatzen da, neguan batez ere. Apirilean hasten da ugaltzeko aldia. Emeak bi errunaldi egin ditzake, 4-6na arrautzak osatuak.

PITXARTXAR BURUBELTZA




Sastrakadiren baten gainaldetik bere apeua intsatzen du eta, gero, hegoak eta isatsa mugimendu urduriz astintzen ditu, adarretik adarrera jauzi eginez. Egoneko espeziea da eta urte osoan ikusi ahal izaten dugu. Inguru askotan egoten da, beti zona zabaletan, zuhaixka-zonetan, inguru zabaletan.

Moko mehea du eta intsektuak jaten ditu bereziki.

Baina neguan, intsektuak desagertzen direla eta, aurkitzen dituen fruituak eta baiak baliatzen ditu elikatzeko.

Martxoan hasten da ugaltzeko garaia. Habia lurrean egiten du, landare artean, zuhaixkaren baten babestean. Urtean bi errunaldi egiten ditu, 5 edo 6na arrautzak emeak txitatzen ditu.

KASKABELTZ HANDIA



Amilotx urdina eta amilotx mottoduna bezala, paridoen familiakoa da. Luma ezberdinak ditu: masaila zuriak eta buru beltza, sabel horia eta bizkar oliba-berdea.

Hori dela eta, errazki ikus daiteke. Bera aurkitzeko seinale nahastezinak dira haren adarretako mugimendu etengabeak eta aztoratzen denean ateratzen duen soinu berezia.

Txoritxo hau ohikoa da Aralarren.

Intsektuak jaten ditu, baina, halaber, haziz elikatzen da: haziak urteko arorik hotzenetan jaten ditu bereziki, intsektuak desagertzen direnean.

Udan belar eta goroldiozko habia egiten du. Bertan emeak 8-14 arrautza zuri uzten ditu.

Txitatu eta bi astetara sortzen dira txitoak. Txitoek jaio eta hiru astetara egiten dute habiatik alde.

AMILOTX URDINA



Beraren tonu urdin eta horidun lumaje ikusgarria ez da oharkabea pasatzen. Hura zuhaitzen adarretan aurki daiteke parkeko artadietan, pagadietan eta hostozabalen basoetan. Bertan horrelako txoriak ugari dira.

Parido txiki honek etengabe jarduten du zuhaitzen artean akrobaziak egiten.

Halaber, zuhaitzen azaletan eta zuloetan aurkitzen dituen intsektuak eta berorien larbak jaten ditu, eta fruituak eta baiak, udazkenean bereziki.

Umetze-garaia apirilean hasten da eta enborretako zuloetan egiten du habia, non emeak adarño, goroldio eta lumazko habia egiten baitu. Espezie hau oso ugalkorra da eta urtean bi errunaldi izan ditzake, 7-12na arrautzakoak.

ZOZO ARRUNTA (TURDUS MERULA)

Seguru aski zozo arrunta daiteke ohikoena zaigun espezie hegodunetako bat.

Ohikoa da ingururik gehienetan. Berarentzat landa zabalak leku egoki-egokiak dira bere harrapakinik nahienak harrapatzeko: zizareak eta barraskiloak.

Fruituak, haziak eta baiak haren elikapen-dietaren zati garrantzitsuak izaten dira, udazkenean bereziki; udazkenean masusta sasietara joaten da.



Arrak lumaje guztiz du. Bertan begi-uztaiak eta hori-laranja koloreko mokoa nabarmentzen dira. Kolore hori biziagotzen zaio umetze-garaian. Emeen eta gazteen tonalitatea arre iluna da.

Ugaltzeko aldia helduta, belar, adar eta goroldiozko habia sendoa egiten du, luma eta ilez tapizatua, sasi artean ondo kamuflatua. Ez du gizakiengandik alde egiten eta ohikoa da habiak biztanguneen barrualdean ikustea.

Hark urtean errunaldi bat edo bi egin dezake eta errunaldi bakoitzean 3-5 arrautza erruten ditu.

AMILOTX MOTTODUNA (PARUS CAERULEUS)

Beraren izen arrunta haren aldarrearen arabera plegatu edo zabal-tzen den gandor irtenari dagokio, zuri eta belzturiko gandorrari. Morfologi ezaugarri hori dela eta, errazki ikus daiteke.

Tamaina txikiko parido hau konifero artean bizi da bereziki. Baina, arretarik jartzen badugu, hostozabalen basoetan eta heskaietan ikus dezakegu, parkean zeharrezko bideen ondoan. Lurralde izaerakoa da eta apeu indartsua erakusten du adarraren gailurretik.



Neguan beraren lurralde jokae-ra taldekoi bihurtzen da, eta beste parido batzuekin taldeak osatzen ditu.

Intsektu, fruitu eta haziz elikatzen da. Apirilean hasten da umeskea, eta hark, beste txoriño txiki batzuek bezala, urtean birritan erruten du normalean. Beraren kideekin (amilotx urdinarekin eta kaskabeltz handiarekin) gertatzen den bezala,

amilotx mottodunak gogo onez onartzen ditu urruki garatutako koniferoen birlandaketetan hain beharrezkoak diren habia artifizialak.

ESKINOSOA



Tamaina ertaineko baso-korbido hau ohikoa da zonan. Lumaje bereizgarria du, beraren familiako hegaztiengan ohikoa ez dena. Bereziak dira hegopeko luma urdin txiki eta marradunak eta bibote-kutsu beltza. Hura ikustea erraz samarra da. Are ohikoagoa da hari bera bizi den baso-inguruetara kanpotarrik joanez gero bere alerta-seinalea entzutea.

Arrautzaz, intsektuz, zizarez elikatzen da, eta landarez gehienbat: ezkurrez, baiaz, pagatzaz eta abarrez.

Udazkenean, urtxintxak bezala elikagaiak (ezkurak eta galkorrak ez diren beste fruitu batzuk) bildu eta basoko hainbat gunetan lurperatzen ditu. Haietarik asko ez dira jaten eta udaberrian ernamuintzen dira. Modu horretara, basoa hedatzen da.

BELATXINGA MOKOGORRIA



Haitzari loturiko espezie honek Aralarreko kareharrizko harkaitzetan egiten du habia. Ohitura sozialak ditu eta bera taldetan hegadan akrobaziak egiten, planeatzen eta hegan egiteko bere trebetasuna erakusten ikustea ohikoa da.

Moko luze eta mehea du eta, funtsean, intsektuz elikatzen da: harrez, larbaz eta ornogabe txikiz. Beraren elikapena menditar larre eta belazeetako lurtean aurkitzen dituen fruitu eta haziekin osatzen da.

Hura bizi den itsaslabarretako arrailetan eta erlaitzetan umetzen zaigu. Belar eta landare-hondakinezko habian emeak 3-5 arrautza uzten ditu, berak txitatuko dituenak.

GAILUPA



Hegazti hau ohikoa da parkea osatzen duten basozonetan, koniferoen zein hostozabalen basoetan.

Potxoloa da eta portaera lasaia agertzen du. Nekez ikusten da lurtean. Izan ere, bertan da eroso egoten, trakets ibiltzen delako. Arra emea baino askoz deigarriagoa da eta ezin nahas daitekeen lumajea agertzen du: kasko, isats eta hego beltzak, bizkar grisa eta bular gorrixka. Emearen bularra tonu arre neurritsukoa da.

Gailuparen elikadura, funtsean landare-jatorrikoa dena, baiak, ernamuinek eta haziek osatuta dago, baina hark intsektuak jaten ditu, gainera, ugaltzeko aldian.

Sastrakadi eta zuhaitz txikietan egiten du habia. 4-5 arrautzak osatuta dago errunaldia. Txitoek sortu eta bi astetara egiten dute habiatik alde.

LEPAZURIA



Habitat askotan egoten da, beto baso-guneetan baina. Aralarren ohikoa da eta parke osoan zabalduta dago. Bizi da gizakien inguruneetan ere. Lepahoriaren kidekoa eta oso antzekoa da, baina bularreko orbanaren koloreak ezberdintzen ditu. Hura zuria da lepazuriarengan; eta horixka, lepahoriarengan. Lepazuriaren tamaina eta pisua txikitxoagoa da.

Lepazuriak gauez eta bakarrik jarduten du. Ugaztun txikiz, hegaztiz eta intsektuz elikatzen da, baita fruituz ere. Fruituek dieta askotarikoa ematen diote.

Lepazuriak udan binatu eta estaltzen dira eta, arrautzak geroago finkatzen direla eta, umeak ez dira jaioz hurrengo urteko udaberria arte.

TXONTA ARRUNTA (FRINGILIA COELEBS)

Fringilidoen familiakoa den txonta arrunta ohiko espeziea da Aralarren, eta parkeko habitat ia guztietan ikus daiteke. Baina ohikoagoa da zuhaiztietan eta landa zabaletan.

Udazkena helduta, txonten, karnaben, txorruen eta abarren talde mistoak osatze dira, zelaietan zehar elikagai bila joaten direnak. Udaberria eta, berorrekina batera, ugaltze-garaia hurbiltzean, txoritxo hau lurraldekoago bihurtzen da: taldeak bereizten dira umetzeko bikoteak osatzeko.

Emeak habia egiten du zuhaitzen baten adarrean edo urkilan, eta bertan 3-5 arrautza uzten ditu.

Normalean urtean bi errunaldi izaten ditu. Ar-eme biek elikatzen dituzte txitoak.



AZKONARRA (MELES MELES)

Tamaina ertaineko mustelido hau itxura potxoloakoa da eta trakets ibiltzen da. Bere buruan karatula beltz berezia du, hondo zuriaren gainean kontrastea dakarrena.

Aralarreko sasi sakabanatuko belazeetan, landa zabaletan eta hostozabalen basoetan garatzen da gehienbat.

Taldeko beste espezie batzuk bezala, azkonarra ilusentian hasten da jarduten



eta gauean zehar jarduten du.

Denetarik jaten du, bai landare-jatorriko elikagaiak (fruituak eta erraboilak) bai animali jatorrikoak (anfiboak, zizareak, barraskiloak eta intsektuak).

Ohitura sozialak ditu; lur azpiko labirinto-itxurako zuloak egiten ditu, zeinetan zenbait motatakoak bizi baitira elkarrekin. Negua hurbiltzen denean, beraren jarduera nabarmen urritzen da eta erdihibernazio-egoerara heltzen da mustelido hau.

AZERI ARRUNTA



Aralarreko mota orotako inguruetan oso ohikoa da espezie ezagun hau.

Ilusentiko eta gaueko azturak ditu eta nekez ikus daiteke zuzenean. Bera dagoela antzeman dezakegu bideetako harrien gainean uzten dituen gorozkiengatik edo lurralde-xedez bere menpeko gune batzuk betetzen dituen gernu-usain biziarengatik.



Kanido oportunista hau saguz, lursaguz, satitsuz, narrastiz, txoriz eta fruituz elikatzen da eta, era berean, zabortegetako zaborrak jaten ditu.

Urtarrilean hasten da umeskea. Emeak udaberrian 3-5 azerikume izango ditu, berak eta arrak zainduko dituztenak.

KATAGORRI ARRUNTA



Guztiok ondo baino hobeto ezagutzen dugun espezie hau ohikoa da Aralarren. Zuhaitzen enborretik ziztu bizian igotzen, adarrik adar jauzi egiten edo elikagai dituen fruitu, hazi eta pagatxak bilatzen ikus dezakegu.

Beraren ilajea gorrixka da, buztana iletsua eta sabelaldea zuria. Belarrien motots deigarriak irtenago bihurtzen dira udazkenean. Beste ugaztun batzuekin gertatzen den bezala, haren gehieneko jarduera eguneko lehenengo orduetan eta iluntzean biltzen da. Hark negurako erreserbak pilatzen ditu: fruituak lurperatu edo zuhaitzen zuloetara biltzen ditu.

Ugalketa urtariletik apirilera arte gertatzen da, baina habiak aurki daitezke maiatzetik abuztura arte ere.

Habia esferikoa da eta zuhaitzen adarretan urkilen gainean eginik dago. Kumaldia 2-4 kumek osatuta dago.

KATAGINETA ARRUNTA (GENETTA GENETTA)

Gaueko azturak dituen espezie hau erraztasun handiz mugitu eta igotzen da zuhaitzetatik. Haren presentzia artadietan, pagadietan, koniferoen landaketetan eta ibaietako ibar basoetan antzeman da, zeinetan oso dentsitate txikiak baitzeuden, Aralarko Natur Parkean. Hortaz, haren presentzia urria da, hura basakatuarekin, lepazuriarekin eta haragia jaten duten beste espezie batzuekin lehian aritzen delako nonbait.



Izaera bakartikoa da eta bere gordelekua enbor hutsetan finkatzen du. Bere orbandun ilearengatik, bere eraztun belztun buztan luzearengatik, katuaren antzeko itxurarengatik eta mutur luzangarengatik ezagut daiteke.

Funtsean, karraskariz eta neurri txikiago batean, hegatziz elikatzen da, eta neguan fruituz ere bai. Binatu eta estaltzeko aldia otsailean edo martxoan hasten da, eta uztailean erditzeak gertatzen dira, bikoitzak izan ohi direnak.

ERBIA



Bere belarri luze eta hanka bizkorrek fisikoki bereizten dute hura kiderik hurbilena duen untxiarengandik.

Goizeko lehenengo orduetan edo ilusentziaren aurreaurretik ikus daiteke erraztasun handiagoz, bakarrik orokorrean, Aralarreko lur zabaletan zehar (mundutar larre eta belazeetan barna).

Arriskuren bat susmatzen duenean, kamuflatu eta geldirik geratzen da, lurraren sakonunean uzurtuta eta sigi-saga mugituz ziztu bizian ihes egiteko prest.

Belarjalea da: belar eta zituen ernamuinak jaten ditu funtsean. Erbiak urtariletik apirilera arte gertatzen den erbikaran bikoteka ikus daitezke. Untxiak ez bezala, erbiak lurrean ditu kumeak, belar gainean, eta ez du lur azpiko zulorik erabiltzen. Emeak urtean 2-4 kumaldi izaten ditu, kumaldi bakoitza erbitxa 1,2 edo 3 izan dezakeelarik. Beroriek oso goiztiarrak dira eta jaio eta denbora gutxira mugi daitezke alde batetik bestera.

BASURDEA



Gaueko eta egunsentiko ohiturak dituen basurdea egunez ikustea ez da erraza. Haren aztarnak eta muturkadurak aurki daitezke soilik, lurra sustrai eta tuberkulu bila iraultzean eragiten dituenak.

Orkatzarekin batera, parkeko ugaztunik handiena da eta bertan horrelakoak ugari dira.

Helduek itxura sendoa dute, eta ilaje iluna. Gazteek, "rayonak" deiturikoe, banda beltz eta gorri-horiko ilajea dute, kamuflatzen laguntzen diena.

Mata orotako baliabideek egiten diote on basurdeari: sustraiek, pagatxek eta ezkurrek. Gainera, lurrean aurkitzen duen arrautzaz, ugaztun txikiz eta narrastiz elikatzen da. Kumeskea azarotik urtarilera arte gertatzen da eta handik hiru hilabetera kumeak sortzen dira. Kumaldia aldakorra da: 1 eta 6 basurdekume bitartekoa izan daiteke.

ORKATZA (CAPREOLUS CAPREOLUS)

Zerbido izuti hau zuhaitzen artean ezkutaturik egoten da egunez, eta ilunabarrean hasten da jarduten. Espezie hau lurraldekoa eta bakartia da. Alde zehatz bat defendatzen du "adausi" delakoaren bitartez, beste kide batzuk urrun mantenduz.


Soinu hori egiten du harrapariak egon daitezkeen alarmaseinale bezala ere.

Orkatzaren ilajea tonu arrekoa da. Bertan buztanaren inguruko orban zuri deigarria (ispilua) nabarmentzen da.

Harren larrera lekuri nahienak otalur eta larreetatik hurbileko zuhaiztiak dira. Hark haietan elikatze lan-dare eta kimurik elikagarrienak aukeratzen ditu.

Maiatzean edo ekainean jaiotzen dira kumeak; ohikoak dira erditze bikoitzak.





Arrain Editoriala

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz
euskaraz idatzitako lanarik handiena

ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK






**ARRAIN
EDITORIALA**

TLF: 94 490 34 04

e-mail: arrain@arrain.es

web: www.arrain.es



ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz euskaraz idatzitako lanarik handiena



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

“Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundutakoa”